

Zuzentzen

ANASTASIO ARRINDA (Anes Lazkauko)

POEMA K

ANASTASIO ARRINDA (Anes Lazkauko)
«Kardaberaz» eta «Euskerazaintzakoa»

P O E M A K

- I.- GURUTZ-BIDE eta PIZTU-ALDI
- II.- LAINO-GOITI
- III.- LAINO-AZPITI

© Anastasio Arrinda
I.S.B.N.: 7086-199-9
Legezko Gordailu: S.S. 726/87
ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45- Zarautz-en irarria.

Zuri, omenaldi onetara
etorri zera orren,
biot - biotzetik eskeinia
nere apaiz - nre-estaietan

Amel Arrinda

Deban 1987'ko Alraillearen 25'an

PAUL CLAUDEL
GURUTZ-BIDE
ETA
PIZTU-ALDI
ANASTASIO ARRINDA

POEMAK I

ATAKA (1965)

Eu.skalerria «beltzak eta txuriak» ikusita zegoe»: zapaldua,
zanpatua, larrutua, bere aragi-zatiak munduan zear sakabanatuak...

Gurutz-bide latza.

*Baiña 2.5 urte-buruan gizaldi gazte berri bat zijoan sendotzen
bizitari begira. Eriotzak ez du azken-itza.*

OstiralSantua ez da azken elmuga.

*Per crucem ad lucem.^ gurutzetik argira. Berriz ere, Pazko-egunak.
Berriz ere Piztuera-egunak...*

«Jaunak egin zitun Zeruak eta L^urra. Lurra zegoen utsik eta ergel...
Et Spiritus Deife^rebatur super aequas.- eta Jaunaren A^tsa, Jaunaren
Espiritua, ur-gaiñetik zijoan...» Urak kokatzen zitun ollaiokak
arrautzak kokatzen dituen antzera...

Eta Bizia ieertu zan Izaki osoare« gaiñea».

*Eriotzak bere garaipena okerraren bidetik lortu zuen; Maitasunak, ordea,
Biziaren aldejakatzen du beti eta batez ere Gurutz-e«borrea»; antxe
garaitu du Eriotza bein-betiko.*

*Gizakia gurutz-bidean joa« arre», ez du itxaropenik galdu. Biziak
Eriotza menperatu bait du. BiZirako gera Jesusen maitasunari' esker.
Iñun maitasunik agertu ba'digu, Gurutz-bidean ere bai.*

Orra Gurutz-bideare« azke« arrazoia.

GURUTZ-BIDE

1964

O,gean gaixo

nengoen.

Eztarritik estu

sukarretan.

Aldameneko

gelan

aita nerea

eriotz-izarditan...

Ona emen

PauClodei

ilunpeetatik argira

etorritako gizona.

Kristoren

Gurutz-bidea

idatzirik zeukan.

OstiraiSantuz

Gurutz-bide

ura

nere erara

euskaratzen

pasatu

nuen.

Era«tsiak

ere

baditu

«ereak.

Anes Arrinda)

I.

*«Pilatok agindu du
lapurren artean
iltzez gogor josteko
Jesus gurutzean.»*

Kristorenak egin du.
Gizonak Jainkoa
menperatuta
eriotzara darama.
Kristo, alde guretik,
erritarrok
zure bearrrik ez degu.
Zesar degu errege.
Urrea ta Gorrotoa
gure lege.
Eraman guretik,
kendu aurretik.
Kendu, kendu.
Areago oraindik:
kendu eta il.
Barrabas nai degu
bere ordeztu.
Gizon onetan
errurik
ikusten
ez det.

Ecce Homo:
ara Gizona emen.
Buruan koroia
arantzeetan,
bizkar gainean
purpura gorria,
malko-odolez
begiak,
aurpegian
errukia.
Zuena da.
Eraman iltzera.
Kendu, kendu.
Gurutzera,
bere bearrrik
ez degu.
Betor bere oñola
gure buru gainera.

...

Ura Pilatoren esku-artetik jario.
Orrua eta marmarra erriak dario...
Eskuak garbitzea alperrik da, Ponzio.

...

Nicaragua, Guatemala,
Vietnam eta Chad,
Gernika,
erri xumeak
gurutzera beartuak,
zapalduak
Goliat aundiaren
oinpean
zanpatuak...
Nork du errua?
Pilatok
bizirik dirau
gizaldietan zear.

—Tok,
eraman gurutz au
argala aizelako
indarge aizelako
txikia aizelako...
Zuzenbidea ori dok.
Indarraren zuzenbidea
errugabeko zuzenbidea
zuzenbide bakarra
indarra.
Mundu onetan
besterik ez da.
Bestean
oberik izanen
al da
Gizonaren
semeak
bere gurutza
eraman
ondoren.
Amen.

II

«Sorbalda» dualarik
guruize astuna
iltzera badijoa
Jesus gare jauna.»

Jesusen. aur^uean
gurutza beso-zabal,
Paraisoko zugatzaren
erraiñu eta itzal.
Adanen aoan goxo
Jesusenean garratz.

Zeru-lurren artean
osin beltz
pekatuaren esi-gabeko
indarrez.

Bitarteko zubia
gurutz ankerra
lapur eraille
gaizto guzientzako
zigortzaille.

Jesusen lepo gaiñean
gizonen pekatuak.

Bera pekatarien artean
pekatariena.

Zatozkit, gurutzea,
amesgarririk onena
betiraun guzitik
bioz-muiñean gordea...

Luze, gogor, lodi
bizkarra ebagitzen duan
gurutz astun ori...
Zer neke etengabea
guruzpean dijoan
gizonari.

Bakarrik zoaz, Jauna,
bakarrik.
Ez al dezu bear lagunik?
Nere gurutza eramateko
izango dut zure bearrik.

III

*«Lurrera erortzen da
Jesus nekaturik
altxatzen laguntzeko
ez da errukirik.»*

—«Aurrera!».
Jendetzaren artean,
ibai arrotua iduri,
Jesusen gurutza
Kalbario bidean.

Lepotik sokamuturra,
animalien antzera,
balantzaka,
jo du lurra.

Zer diozu, Jauna?
Lurrean zaude ta
arpegia autsetan,
gurutz astuna
gaiñean.
Zer usain du
zure eskuen artetik
sortutako Lurrak?
Erori zera
ustegabea
bi belaunez
kale ertzean
Kalbario bidean
erriaren kaltez...

Pekatuaren astuna,
milla kintaleko beruna.
Azpian zapalduta
Jainko Jauna.

Ama Lurra,
Jesusen erantzuna,
atseden apurra
neretzat,
besterik ez dut
une onetan.

Biziaren sortzea
darama
bete-betea.
II eta obiratzea
bearrezkoa,
lenengo epea.

Soldaduaaren zigorra
belarri ondoan,
zekena, gogorra,
erruki gabea,
erraiak arrizkoak.
Atsedetik ez da Zuretzat.
Jeiki adi, Giza-semea.
Kalbario bidea,
lertu araztekoa.

IV

*«Agertzen zaio Ama
negarrez bidean.
A i zer samintasunak
bien biotzean.»*

Seme bakarraren ama gaixoa,
gogorra semetxoaren azken-ordua.
Ezpañak legor, sua bekokian,
milla gauza mesilla gaiñean:
pastillak, ura, termometroa...
Eriotzaren arpegi eroa.

—Jantzi zapatatxoak
barruko erropatxoak aldatu.
Nere semetxoa
lurperatu nai duen gizona
badator
zeken-alena.

Agur betiko
nere aragiaren
zatirik gurena.

Ama Maria kale-ertzean maitekor,
begiak uts, ao-zapaia legor.

—Nere semea ba'letor...

—Ara an, badator,
gurutzepean zapal,
odol-izardi tapatz.

Amaren begiak lauso,
aurrez-aurre
bere semea dakuzte...
Begiak alkartu,
aoak ixildu,
besoak zabaldu,
matrallak estutu.

Amaren biotza urduri,
Jaunaren aurrean ixil,
zazpi ezpataz josirik,
zazpirak maitez arturik.

—Jainko zuzena,
emen zure Semea.
Bete bedi neregan
zure borondatea.

Ama errukigarriak
malkoz beterik begiak,
samiña gaiñezka
bere biotz barrenean,
itzik ez mingaiñean.

V

*«Simon xirinetarra
artzen dute lagun,
gurutza eramaten
ikasidezagun.»*

Jainko-semea
aurrera dijoa,
baiña bere bidea
ez da luzarokoa.

Ankak makalduta,
arnasa galduta,
geiago eziñik,
geldirik...

—Jainko alguztiduna
indarrrik gabea,
arlote eskalea,
begirakuna
larria zurea...
Nere indarraren
bear zerala zu?

Au nere zoruna,
Zirinetarra dut
laguna.

Baiña Jesus,
bizkarrean daramat nik
gurutze astuna,
bularra arnasik gabe
doi-doi nere belaunak.
Nere zireneo ba'zera
ordea

bildur gabe noa
tontorrean gora
zure bidean.

Nere gurutzepean
zure erraiñoa
dijoa.

Zurekin batera
goazen aurrera.

VI

*«Pekataria nun da
zure errukia
Jesusi garbitzeko
malkoz arpegia.»*

Apostoluak
bildurrak ditu
sakabanatu.
Pedro berberak
Jauna du
ukatu.

Eriotz-egarrizko
jende artean,
emakume bakar bat
bildur gabea.
Jesusengana dator
eskuetan zapia
- be^ietan argia
bilaurgabean gogor.

Menperatzen bildurkeria
eiguzu lagun, Beronika.

Kristo itxura besterik badela
sinisten dutenak
ondo astertzu dezatela
beuroen pausoak,

etzaiela paltako
masiatzaille naikoak
ez bait dira
munduarentzako
guztokoak.
Kristoren seiñale dute
aurpegian argi,
seiñale txarra da-ta
kontuz erabilli.

Beronika andrea,
nun den zapi zuria,
zapi orretan gordea
Kristoren aurpegia?

Jarri zaiguzu begien aurrean
begira-begira ase gaitzean.

Jainko altsuaren antz-irudia
gure malko, odol, txistuz betia,
zaitetz betirako gure bizia.

VII

*«Ludiko pekatuen
astunaren aundiz
gurutzepan Jesus
erortzen da berri.»*

Ez da kulpable arria
ez soka-muturra.
Bigarrenez eroria,
animak du errua,
indarra palta
barruan.

Bizitz-erdiko
erori-aldia.
Bidea luze
argirik ez.
Legor biotza
bakardadean,
basamortua
ingumarian.

Nekez, aspertu
bide luzean,

lurra jo degu
bat-batean.

Gorpuarekin batera
gogoaz zaigu lurrera.

Aspertuaren pekatua,
bide-erdiko errua.
Asieratik urrun
bukaerarik ez dakus.
Ai ene biotz,
lurra jo degu aoz.

Jauna, erruki
nere bigarren
erori aldi.
Bizitz-erdiko pekatu,
aspertuaren erru.
Jauna, barkatu.

VIII

*«Jerusalemgo alabak
ez neri negarrik,
negar egin zazute
pekatuagaitik.»*

Mendi gaiñera
eltzerako
gelditu da Jesus.
Emakumeak
bidean ertzeko.
Malko samiñak:
—Jauna, zer diozu?
—Ez neri negarrik.
—Zeiñeri bada?
Odolez josirik
begiak
illun dituzu,
iturri biziak
legortu
zaizkizu.
Aurpegian
eriotza damazu.
—Egia.

Neke artean
bear da
pekatuaren beltza
garbitu,
Jainkoak
ala nai eta.
Nere nekeak
ez dira gezurrezkoak.
Pekatuaren ordaiña,
zerutik jetxi eta
gurutzera igo bearra.
Arbola bizia naizela
narama Aitak onela.
Nolako suertea
izanen ote du
arbola igarrak.
Pekatarari tristea
negar egizu.

IX

*«Ainbesbe neka-miñez
aul egiñik Jauna
irugarren aldian
emen jo du lurra.»*

Irugarrenez, pekatu.
Gau-illuneko
nere irugarrena.
Galdu dut
itxaropena.

Nere gorputzeko
aragiak nau
menperatu
ta zapaldu.
Aspertu naiz,
nekatu.

Gauden auspez
lurrean
gurutzpean,

- (irrezago bart d;
gurutz gaiñean
baiño.
Argia galduta
gau illunean
nago.

Gaitz-erdi
oraindik
eriotza urrun
badago.
Zatozkit,
Jauna,
nazazu jeiki
eriotza baiño
lanago.

X

*«Ludiaren aurrean
jantziak kendurik
or dago Jesus ona
oso lotsaturik.»*

Arri-gaiñean
jota
gari-alea
narru-gorri.

Mendi-tontorrean
zutik
soiñekoa lurrean
Jesus maitea
aragi-utsik.
Jantziak
kendu ondoren
zurekin dituzu
odol-arrasto
zauriak...
Ez dezu
beste jantzirik.

—Zein parregarritzkoa
zuenjainkoa,

eroa ote da
odol-zauriz josirik?

Jauna izkutuan da
gizona argiratu,
Jainkoa ikusi ez da
aragia azaldu.
Orra Giza-semea
malko negarrez bete,
lotzak sumindua,
zauriz urratua
anaia gurea...

Iñoren mendean
estututa
dabilen gizonari
izan, Jauna,
erruki.

Eskeiñi diote droga
lo artzekoa
gurutz-eriok
zorabio
sortzean
eraman aldezan...

—Esker milla,
ongille zerate
baiña
lo-gairik ez
mesedez,
billusik naramate
eta erio samiña
jaso bear
ene animak...

Or ditut ikusten
kordarik gabe,
etengabeko
multso,
etzanik loietan,
txerrien antzo,
arima galdu
begiak lauso,
gogo-barnean
laño
beltz
illun,
argigabeko inpernu gorri,
edari malko
garratz,

nazka, nazka, nazka
olatueta
uin
itogarri
sekulo - sekulot an...

Esklabu dituzu
mingaiñean
askatasuna garraxi
badute ere.
Jaun nagusi
zital baten menpean
ezkerrakin kili-kili
eskubiakin
latigoz erre.

Inpernua lurtean
drogaren menpean
agoniarik
larrienean
itxaropenik
gabeko
gau luzean...

Nere miñaren miñez
eta samiñaren samiñez
izanen aldu
zenbaitek
inpernu ortako orma
latzeetan gora
irteteko kemena.

XI

*«Gurutziltzatu dute
zañak urraturik
ezurrak askatuaz
bere giltzetatik.»*

Jesus lur-gaiñean
dan bezin luzea.
Bere neurria
gurutzea.
Emendik ona,
dio soldaduak.
Neurri motza
neurri zurea,
gizonezkoena...

Jainko neurrigabea
giza neurriz
neurtu,
baztarrik gabea
gurutzari
lotu...
Maitasunak
ez dezakenik
ez da oraindik
sortu.

Zaude neurturik,
esia zure inguruan
iltze gogorra
burnizkoa.
Goi-gaiñetik
buru-koroiean
arantza mingorra
larrezkoa.
Etzanda zaude,
ogea aukeratu dezu
estaietakoa;
or dezu alkartzen
Jainkoarekin
Gizonezkoa.
Errege zera
betirakoa,
zure eserlekua
egurrezkoa.
Josi dizute eskua
eskubikoa,

zeru-lurrak
egitekoa;
ankak ere bai
zorionekoak
mendirik-mendi
Berri-ona
zabaltzekoak.

Zaude iltzez josirik,
ez dezu eskapatzerik.

—Ez det iges egingo.

Jainkoa
josiko duten iltzerik
ez dago,
Maitasuna besterik.

—Nun billa nezake Jainkorik
zu bezelakorik?

Iltzeak
ankerrak
aragia
gurutzean
josia
gogor
gogor
gogorrean
estu
estu
estutasunean
aragi josiak
ezurrak ausiak
miñaren zorabioa
erdiko gunean
buru-garunean.

Eskuak
eta
oiñak
zuloak
etenak
ausiak
kirioak
leertu bearrean.
Lau zauri
lau iturri
burni
guri
lau erreka
mingarri,
lau kate
negargarri...
Zure askatasunaren
illobi
zure eriotzaren
ezaugarri.

Lotura estuak
itoak,
egoak
moztuak,
egoak
lotuak
ganbarako abe zaarrear
xagu-zarra
josten dan moduan.
Eriotzaren ipur-aulki
urdaillaren agoan
pekatuaren pixua
biotzaren gaiñean,
askatasuna
zanpatua

eta aurrean
irriparraren agin zuriak:
—Jetxi adi
jetxi adi
aal baduk,
aska adi
aska adi
aal baduk,
besteak
salbatzea

ez duk
aski,
salbatzaille iñozu.

—Eskuak aska ezin
biotza lotua danean
maitasunezko katearekin.
Ezin
ezin.

XII

*«Gurutzean jasota
miñez aseturik
il da Jesus maitea
gure onagaitik.»*

«Pekatari tristea
damuz negar egizu
pekatuz Jesus ona zuk
gurutzetu dezu.

Kalbariko mendira
igo zaitez lenbailen
bertan ikusi dezazun
zure Jauna iltzen.
Begira zer maitasuna
zurekin edukiduben
ta nola bere bizia
eman dizun salba zaitezen.»

(Erri-abestia)

Miñetan igari
zaude,
baiña orain
il bear dezu.
Dardarka
arnas-estuaekin
zure gurutza,

eguzkia itzalduta
illuna inguruan,
zure barruan
burruka galdua,
indarrak
bearko dituzu
neurigabeak,
ardo-miñez ontzia
gaiñezka,
mendialakoak
barnean nekeak,
arnasa palta
ito-bearra
lausoz begiak.

—Ez det amarik ikusten
nere inguruan.

—Emen naiz, seme,
gurutzepean,
odola tantaka
nere magalean...

—Egarri naiz
legortu zait

mingaiña
ladrillu legorak aiña.
—Egarri zera, Jauna,
nere maitasun egarri
zure laguna
naidet izan
orain eta beti.
—Aita,
zure eskuetan nadin,
zuga det
betirako atsegin.

Begiak itxi
burua makurtu
gorpuza lasaitu
aizkena iritxi.
Atoz,
Eriotz,
zu zera nagusi.

Nere orde z il da
nere maitea,
orra bildotz ezti
errugabea.

Eriotza baldin bada
pekatuen saria
ez du Ark pekatu-
rikan
ni naiz pekataria.
Semearekin ez dezu
izan errukia
guretzat izan dedin
betiko bizia.

Nere alde z il da
nere maitea,
orra bildotz ezti
errugabea.

«Ostiral Santuz Golgota mendin
enarak zer zebiltzen?
Jesusen buru odolestuan
arantz zorrotzak gutxitzen.
Ai nere Jesus, maite maitea,
zein egon ari lediken
josirik zauden gurutze ortan
zure nekeak arintzen...»
(Erri-abestia)

Zure nekea:
nere lagunurkoarena
da
zurea.
Nere inguruan zaitut
bizirik.
Nere inguruan dabilten nekeak
oiek dira zureak.
Askotan igaro naiz
aldamenetik
neke
oieri
begiratzeke.
Aurrerantz
neke oieri
obeto begiratzea
izanen da, jauna
asmoa nerea.

XIII

*«Semearen gorputza
jetxi dutenean
aizer ezpata daukan
amak biotzean.»*

Gorputz otza
Mariak estutuka
berotu nai.
Semearen
begien gaiñean
amaren malkoak
jarioka
eten gabeko
ibai.

—Jesus, nere erraietako zati,
esan eidazu bai.
Betazalak jaso

belarriak iriki
egiozu kaso
zure amari.

—Jesus joanik da, ama.
Emendik aurrera
guretzako
bere izpillua
zu zera.
Jainko semea
zure magalean
aurkituko degu
illunpean gordea.

XIV

*«Obira dutenena
Jaunaren gorputza
itsaso samiña da
Amaren biotza.»*

Arri gogorraren zuloa,
zulo illun ikaratzekoa,
bertan lo dagin
Jesusen gorputz ebagi
piztu bearrezkoa.

Illobia
ez da bera bakarrik
arrizkoa,
bada aiñakoa
gizonaren biotza.

Gure gurutzeen
neurriak
Jesusen gorputz
ebagiak
ditu.
Zauri bakoitzean
odol artean

pekatuen
arrasto beltzak
dakus.
Zatoz len-bai-len
gugana
Jesus
eta biotz-erdian
sartu.
Zuloa
badu
nere biotzak
osin beltza
lakoa.
Batek
bakar-bakarrik
bete lezake:
Zuk.

Amaren biotza
samiñez eiota.
Samiña
maitasunaren alderantzia
bait da.

Jainko biotz-euleak
aririk zurienak
aririk gorrienak
erabilli bait zitun
bere amaren biotza
eiotzeko.

Zuri
elorri-arantzaren zuria
garbia.
Gorri
su-garraren gorria
garbia.
Emateko
zabal,
ez-bearreran
laguntzeko...

Gorputzik ez magalean,
lurperatu dizute semea,
biotzaren bakardadea...
Agur, Ama maitea.

PIZTU ALDI

XV

*Guruzetik argira,
eriotzatik bizira,
Ostiral Santutik
Pazko egunera.*

Nagusitasuna nun dezu
Eriotz madarikatu?
Garaipena
illobitik irten duenak
daramena.

—Maria, bidean zer?
—Illobi utsa, mainer
tolestuak bañan
Jesusen gorputzik ez.
Zuk eraman
al dezu?
—Maria.
—Nere biotzeko Maixu.
—Jeiki oiñartetik
eta esan
nere laguneri
alkartuko gerala...

Maria mendian beera
erotuta bezela
korrika
presaka
aurrera
beti

aurrera
kale estuak zear
eskilleretan
gora.
—Tan tan.
—Zer da?
—Maixua
piztu da.
Jantziak
bakarrik
iilobia
uts.
Oiñetan
aingeru,
baratzean
Jesus
bizi-bizirik
maitekor...!

Alkarri begira
apostoluak,
barruan
biotz elkorrak,
sinisgaitzak dira
emakume onen
kontuak.

—Oiek danak
amesgaiak,
buru eroearen
fruituak.
IUobia
arri bizian egiña
atean
arri borobil gordiña
aundia
lodia
eun erraldekoa
mogitu eziña.
Kanpotik
erromatar
soldadu zar
guardian.
Gaitza
andik
gorputza
kentzerik.
—Ba, Jesus piztu da
alkarrekin egon gara.
—Zaude Maria lasai
erokeririk ez degu nai.

Luze dijoaz orduak Zenakuloan
danak alkarri begira luzarokoan
biotzak goibel, buruak eroan
bildurra zalantza barru-barruan.
Eguerdiko janak maigaiñean
goserik ez eta sobrean
morrollo zaarra atean.
Bat batean
orma gogorra
erdibi
argi-iturri.

Erdian
Jesusen iduri.
Apostoluak
dar-dar.
—Pakea zuentzat
pakea berriz
borondate onekoai.
Pantasmarik ez da
aragizkoa naiz
to, Pedro, nere eskuak
begira zuloai.

Jesusen inguruan
bildu dira apostoluak
parra ezpañetan
begian malkoak
zabal-zabal biotzak
leertu bearrezkoak.
Au pozaren zurrunbilloa
pozaren pozez erotzekoa
Jesusekin batera
sartu da itxaropena
illun beltzean
zeuden biotzak
argiratzeraz,
biziaren zoragarria.

—Zoazte mundu zabalera
nere Berri Ona eramatera.
Zeruan aita dezute
bitartekoa naiz ni
pekatuak barkapena du
zeruko ateak zabaldu
inpernukoak itxi
zuekin izango naiz
orain eta beti.

PAZKO GOIZEAN

*«Maria stabat
ad monumentum
plorans...»*

—Maria!
—Rabonni..!

Maitemiñetan
txorabio buruan;
odol-taupada,
samiña baltza
biotzean;
egon-eziña
oiñetan...
Hlobira
negar egitera,
biotzaren miña
ustutzerera...
Gau beltzaren beltzean,
samintasun guzien samiñean,
bat-batean...
argia
ta pakea:
—Maria!

Maitearen deia..!
LUen artean
bizia..!
Illun beltzean
argia..!
Pozaren zorabioak
biotza biurtzen dit barnean...

Itxaropena galdutako
ontzia
olatu-orruen artean;
bat-batean
barea,
pakea,
argia,
poza,
bizia...
Itxaropen muturrari
itzatsi
nazaio;
zulo makurrak
irentsi-
ko ez nau geiago...

—Ez eldu,
ez ikut..!
Gelditzera ez ni
beartu...
Poza zabaldu
bearra
bait dut...
—Zatoz nigana.
Txamarta
bota egidazu
pondo eman
aal dezadan...

Pondo eman
da b-fretu...
Pondo eman
da baketu...
Pondo eman
da berritu...
Pondo eman
da alaitu...
Pondo eman
da bizkortu...
Pondo eman
da berotu...
Ene Maixu,
itz egidazu
Zuk!

PAZKOIGANDEZ

Pax vobis

«Ego sum
nolite timere...»
Zu zera
pake-erakarle
maixu
maitale,
zurekin
pake...
—Ni naiz
bildurrik
ez izan...
Zaudete
lasai...

Apostoluak, berriz,
Espirituz beteak
ziarduten kantari
goratzarreak
Jaunari.

Emauskoak

Zuretik urrun
zijoazen
biak;
Zu, berriz,
bidera irten:
—Zer dezute
alkarri
kontari...
—Zera zertu dala
Jerusalemen,
Mesias alegia...
Bera izango
zala
uzte oi genduan,
baiña...
—Burugogor
itxuok,
iriki
begiok...
(Ikusi ez ikusi
gelditu ziran)
—Bera zan.
biotza utzi ditu
su ta gar.

PAZKO ALDIAN

Tiberiades (I)

Tiberiades itxasoan
arrantzan Ikasleak;
arrantzan bai
baiña,
arrañik ez.
Ondartzan
Maixua oñez:
—Mutillak,
arrañik bai?
—Ez, jauna,
arrañik ez.
—Bota eskubira
sareak,
jasoko dezute...
Arraiñez
txanela bete da
toletearaiño...
Ondartzan Maixua
sua
eta ogia
arrañakin:
—Geiago ekarri
oietatik...

Goiza zan
egunsentian.
Gose ziran,
arrantza-gaua
luzea...
Anai-arteko
gosaria:

arrañ erreak
eta ogiak
Maixua
erdian;
biriketan
aizea
meea...
Giarretan
nekea...
Gosaria
zoragarria:
—Pedro,
maite nauzu?
Maite-egarria,
nunbait, Maixu
maitagarriak.
—Bai, Jauna,
zuk dakizuna
ori da.
—Zajdu
ene ardiak...

Tibertades (II)

Arraiña eta ogia,
sua
itxas-bazterrean
ondartza gaiñean...
Maixua
dabill
goiz-aldean
legorrean:

—Arraiñik bai?

—Ez.

—Bota eskubira...

Sareak

lertu bearrean.

Arraiñ

ugariak,

aundiak...

Sarerik

lettu ez...

—Atozte ta jan.

Ondartzan

uraren onduan

egun-senti orduan

gosaria

Jesusek jarria

gose zeudenak

asetzeko...

Miraria

esku-artetik dario

urdaillaren garraixia

epeltzeko...

Zoragarria

zera, Jauna;

zuk egin bait dituzu

gorputa anima...

ZAUDE GUREKIN

«Mane nobiscum,

Domine,

quoniam advesperascit

et inclinata est

jamdUs...» - C

Zaude gurekin,

enejaun ori

arratsean

gaude;

eguzkia

beera

doa,

itxasoan

sartzen...

illuna dator

gora...

Piztu egidazu

illetargia

or goian

ortzian,

izar artean...

Zure Piztueraren

argia.

Otoitza:

«... mundu ontako
joerak motelduaz
beste bizitzako
edertasunak
irrika ditzagun...»- Amen

«Ni artzen nauna
eta
bialdu nauan
Aita
biziko
da,
ez du
eriotzik
ikusiko...»

Sinisten dut
eta
ene barneko
ateak
iriki.
Sartu barrura,
Jauna,
sartu barnean;
ez zaitez ateetan
geldi.

Psalmus 90

«Neroni izango
nazaio
babes,
esagutu bait
nau...»

Dei dagit
eta
lagunduko diot;
atsekabeen
berekinaiz,
askatuko dut
gaitzetik
eta goratuko...»

—«Zueri pake,
pake zueri.
Apostoluak pozik
Jesusen aurrean...»

«Gure pekatuen
ordaina,
berak
gurutzean
jaso du;
pistu da pistu

santutasunean
jartzeko...»

«—Nere eskuetan
aginpideak...»

Otoitza:

«Pazko jaiak
itzal
aundiz
ospa ditugunok
betiko zorionera
iritxi gaitzezela,
Aita.»

Psalmus 144

«Jausi zera
auspez,
espiritua oiñetan
dezu...
Jaunak jasoko
zaitu...»

Psalmus 102

«Aita ona
bere semeen
erruki;
alatsu Jauna
geiagoz...
Lurrezko gerala
Berak
ondotxo daki,
egillea
danez...»

Otoitza:

«Pazko jaiak
egintzetan
mamitu ditzagula,
Jauna.»

1, Joannes, 5, 6.

«Yainkotik
danak
garaipena du
berekin.
Garaipena,
sinismena...»

Ev. Joannis

«Jesus erdian
maitekor:
—Zueri pakea...
Ikusi nauzulakoz
sinisten
duzu. Zorionekoak
ikusi gabe
sinistuko
dutenak...»
«Jainko... arren
eman
maite
dezadan
zuk agindua;
eta irrika
zuk eskeiñia;
orrela
munduaren
gora-beeratan
biotza dezadan
an
egiazko
pozeetan...»

Amen

Amen

Amen.

Iru alditan

Amen.

Iruak
borobiltzen
bait ditu
diranak...
lurrean
eta
zeruan.

LAINO-GOITI

POEMAKII

*«Larra guztien gaiñetik eta laino guztien azpitik» esan
oi zuten sorgiñek akelarrera abiatzeko, erratza egazkin zutela.
Mutil gizarajoak itzak aldatu zitun: «larra guztien azpitik
eta laino guztien gaiñetik». Txukuna etxeratu zan goiz-aldera.*

*Guk laino azpitik eta laino gaiñetik ibilli nai degu: laino azpitik
lurra eta laino gaiñetik zerua... Bien bitarteko eragillea
gizona, oiñak lurrean eta burua gorantz...*

*Bigarren liburuska onetan gizona gora begira ipiñi nai degu
eta irugarrenean giza-arazoetan murgildu.*

*Bizia berbera bezala, lantxoak ere mota guztietakoak dituzu.
Garaien goraiakoak.
Marrazki txikienari ere bere garaia erantsi bear zaio, zion Picasok.
Ortan saiatu gera, gizarteko kinkaren ezaugarri eta erantzun diranez.
Barruan sortzen dira, baiña eragiñaren asiera kanpotik datorkie.
Norbere burutik at.*

*Larreko emaitzak.
Murrizak.
Apalak eta edergaillu aundirik gabeak.*

Deba, 25-X-1987

MALKOAK DAGIZU
JOAN DALAKO EGUZKI...?
MALKOAK BEGIETAN,
IZARRIK EZIN IKUSI.

(R. Tagore)

ZERGAITIK ZERGAITIK
ZERGAITIK ZERGAITIK
ZERGAITIK NEGAR EGIN...?
ZERUAN IZARRAK DAGOZ
ITSASO ALDETIK.

(Euskal abestia)

AGORRA

Ura ta lurra
lurra ta ura
ura ta lurra
lurra ta ura.

Uraren egarri da
Iurra
agorrak
antzutuko du bestela
Eriotz-agorra
legorra...
Ezea-bizia
urakin batera...

Ene anima
Jainkoa dezu bizia
ur gardenaren
iturria...
Legorrak antzutua
dut biotza
Zu gabe...

Eriotz ankerraren
menpean
erbestean
luma-gabeko txori ttipia
kabitik eroria
zapelatzaren atzaparretan...
Zu gabe
galdu dut itxaropena
biziaren aria
^ten zait barnean
aitu zait arnasa
biriketan...
Ordaiñetan
negarra
biotz minduaren
sotiña
galdu zait
arnasaren iturria
ezetasunare bizia...

g_ ,

(1974)

GAULUZZEA

Udaberri
sorgiñ...
Aizea
mea,
txiruli
ugari
mendian.
Kabia
berria
sasi-arteko
zugaitz
melarrean,
oraindik
bero-gabea...
Ikustean
alaia sortu zait
biotzean...
Ames egiñ dut
aurtzaroan...

Bitartean,
urteak
luze,
goi ta be,
argi paketsu,
illumbe
beltz
negargarri...
Egun senti
eta gau
etenik
gabe...
Eguzki-galda,
izotz
elkor...
Guzti
naastean...
Azia erein dut,
uzta

baña
nabari ez da
iñun...
Alperrikakoa ote?
Euntes ibant
et flebant:
ereinlaria zijoan
gizaraioa\—————
btorn, 6
ordea,
pozez beterik:
benientes
autem venient
cum exultatione
portantes manipulos
suos...
Ereinlari baldarra,
azia eskas

erein duk...
Uztanun...?
Negarrez erein bear
guk
negargarri dan
Euskalerrri
onetan...
Negu luzea,
gau luzea,
izotz-elurrak
eten-gabeak
ustel du duk
aizea...
Zapuztu
bero-gabeko
kabia...
Agur,
Euskalerrria...

(1973)

KATEA

Larri,
biotza larri,
birikak larri,
arnasarik ez.
Ito-bearra.
Eriotza zer ote?
Larritasunaren azkena.
Bear bada,
askatasuna.
Gorputz lureko
onen
menpetik
odeietan zear
aske gertatzea...
Kateak eten:
tximeleta
lokarri artetik
libre...
Txuri, gorri,
orlegi, ori,
gaztaiñ
lur-kolore...

Bizi,
urduri,
betikotasunaren
jabe...
Biotza dut larri,
gibela dut larri,
urdailla dut larri,
gogoa dut larri...
Larriak eten oi ditu kateak.
Larri gaberik ezin libertadea.
Eriotza bear;
nekea bearrezkoa.
Ene biotz,
maite duk
askea;
larritasunaren menpean
bearko duk.
Eutsi larriari.
Etengo duk
katea.

(1974)

UTSUNEA

Zuloa dut barnean
ezin aseko zuloa
zuloa biotzean
erraietan zuloa
zuloa gibelean
zuloa
animaren muiñean...
Ezin ase
ase eziña...
Anima zati
biotza erdibi
minbera dut biotza
minbera dut gogoa
minbera
gibel ondoa...
Nun billa
erremedioa?

Zugandik urrun,
enejainkoa,
ez dut
atsedenik topatu...
Aragia zirika dut
ase dut aragia
baiña
biotz barneko egarria
dirau ene muiñean...
Gosea dut ase eziña
ezkurrekin bakarrik esetzen dan gosea
nere gosea
nere egarria
zorionaren nere utsunea
aundiagoa da
ezkurak eta aragiak
baiño...

Gose naiz ta
merengea jateko
egarri naiz ta
aizea edateko.
Nun aseko ditut
amaiera gabeko
ene gose-egarriak...?

Zuretzako egin gaituzu
ene biotzeko asegarri
alperrik nabil alperrik
zugandik urrun...
Ez da munduan sortu
nere biotzeko zuloa
beteko duen betegarri
egarria dut egarri
urgabeko basamortu
legor onetan...

Zabal egoa
ene Maite
zure egalpean
sartu
nai dut
itur
gardenean
igari nadin
igari
murgildu nadin
murgildu
zure begi
maitekorren
itzalpean...
Jainkoaren begiak
beraren billa
dabilenaren
gaiñean...

(1974)

MAITE-MIN

Maite zaitut
zaitut maite
min dut
biotzean min dut
biotzean dut min...

Etsi ezin
zapust nauzu...
Entzun
gogor ori
maite zaitut oraindik
nik...

Zauria egin didazu
zauri zabala
biotza erdibi...
Maitasun
ustu zait
galtzairu gorri
sutan goritua
arean bezala...

Ustu zait biotz
aretan zait
gelditu zikotz
otz
otz
otz
izotz...

Otzetan legor
aretan gogor
ankor...
Eriotza zait biotz muiñean abiratu
ta bere egapean
nere biotz
galtzairu otz...

Ar-losa illobi gaiñean
biotza il zait
agur
askatasuna eldu zait
agur
askatasun libertadea...
Etzera izan merkea!

(1974)

«NAVICELLA»

Bateltxo

Arin, arin
ertz
batetik
bestera;
goi-goitik
be
beera,
uiñ-uiñ
erpiñ-
era,
andik
amil-
tegira...

Burruka,
naaste,
ekaitz,
zurrunbillo,
aize-
burrunda...

Goibel
zerua...
ontzi-txanel
nerea,
nundik
joka-bidea?

Odei
artean
argia,
tximist
luzea,
Nortea
gurutzea...
Amildu ziñan,
jetxi
amiltegira;
gizon
gizajo-
entzako
eredu...
Jesus
zut
ontzi nerean,
agindu
sortu
dediñ
barea,
pakea...

Bear bada,
gero
izanen da;
bitartean
gerrea.

(1974)

AIZERIK-EZA

Belarriak iriki, Jauna;
nere otoitzetara makurtu.
Lepazamarretik eldu
dit larritasunak.
Zuregana jo nai dut
lagun billa...

Milla ta milla
atzaparrek
eldu didate,
estutu didate
biotza eta birikak...
Arnasa falta zait barruan,
estutasuna,
larritasuna,
arnas-estua,
udaill-agoan
aztuna...

Izardi otza
bekokian...

Zugana nator,
nigandik
zure arpegirik
ez aldendu.
Esku bat bear dut.
Erio-itza larria
nere gain...
Zuregana jo dut,
ene Jesus,
gurutzepean nauzu.
Odola inguruan,
zauriak oiñetan,
zauriak eskuetan...
Baiña,
zure arnas-estuak

zulatzen dit biotza;
aizea palta biriketean,
auspoa estu,
aizerik atzeman
eziñ orrek
larritzen nau.
Ito bear eta ito eziñ
orrek
lagun oi dio
ito-bearrean larritzen dan gizajoari
Kirioak larri,
biotza larri,
zelula guztiak larri...
Eriok
atzeded dakarkio
larrian dagoanari.

Goiz artan gizajo arrek,
gaua aizerik gabe
pasa ondoren,
bere burua bota dio
trenari...
Arritzen ez naiz, Jauna,
trena soin gaiñean
obea bait da
aize-eza baiño...

Eldu egidazu eskutik
larri aldian,
eldu, arren,
ao-zabalka itotzen
dagoen
gizajoari...

(1974)

EZ-JAKIÑEN JAKINDURIA

(El Villar'eko andratxo Maria'ri)

Erri arlotean
arrote
ez dezu aberastasunik
ez dote
ez zera letragaietan
dotore...
Ene andratxo Maria
nundik
sortu dezu
jakinduria?
Ez-jakiña izanik
jakinduria dezu
gañezka gogotik...
Jainko eldu-eziñaren berri
nork eman dizu
Berak ezik...?
Ez maixuk ez teologorik
zuk dakizunik
ez daki...

Nundik, baiña, nundik?
Goiko Argiak argiturik
ikasi dituzu
ainbat

Jainkoarekiko berri...

Sekulan
zuk esandakorik
ez dit
iñork esan
Goiko Zeruetan
gertatzen danik
zuk bezela
agertu ez dit
iñork sekulan...
Ez zera ez azti ta ez sorgin
Maite dezu Jauna biotzetik
Aretxek egiten dizu argi.

(1970)

IZAKI-ILLA

*(Antton Eltzegiren SUSTRAIETAN
datorren arbola ildakoaren
argazkiaurrean.)*

Bizirik itzan
bide errezetik
bidea ebillan...

Bat-batean
illunak jo dik
ire lurraldean...

Illunak eriotza
dakar berekin...

Forma utsak,
forma beltzak...

Itxurak
bizirik eza...

Utsa
Korapilloa barnean
adarrak billutsik
naasketa batean...
Bide txigorrak
ugari mendian
illuna lañopean...

Biziak dirau
azalpean...
Illunak
argia egarri
utsak
zera egarri
biziaren ames
biziak errez
bait darama
bere zailtasuna.

Tximistak
jo du
arbola...
Mendian beera
lañoa...
Amesetan
gogoaa...

(1976)

POEMA UTSA

*(Antton Elizegiren SUSTRAIETAN
liburuan dagoen
txori-malo bateri gegira...)*

1/ Txori-izugarri
2/ Santu.
3/ Artista.
4/ Gizon.

1.

Txori-izugarri
txori-malo
burua goian
baiña utsa...

Itxurak egiten
esku utseri
begira...

Izugarri
eta uts...
Buru aundi
eta uts...

Utsaren ondorengo
i
izugarri
giza-itxura
eta uts...

Kilin-koloka
eta arro...
Jakin-muiñaren
itxura
utsa...
Aize guztietarako
pinpilin-
pausa...
Gizonaren mendeko
urterik-urte
sekulako...

Izugarri
parregarri...
Izua eman nai
parra eragin...

Gizontxo.
Sorginkeri guzien
ezaugarri...
Menderik-mende
San Juan goizeko intzeetan
aztikerien kutsua
daramak ik

illargi betearen printzeetan
nabari
akelarre beltzeetan
mirari

Txori-izugarri.

2.

Bat-batean
biziak ikutu dik
barnea
saltamatxingo
aizean igari...
Gora begira jarri
adi...
Buru-ganbara
zuloetan
argiak argi...
Jogaiñ-
gaiñeko maillara
aztikerien gaiñetik,
ortz-adarren gaiñetik
zeru-egarriz
egaka goruntz...
Arranoa iduri
eguzkiari begira...
Goiko-jakinduria
kokatu da
ire animaren
muiñetan
Txori-izugarri
benetan
arrigarria
i

3.

Jakinduri
suspertzailleak
arama i
arte-mailletan...
Txori-izugarri
berriro ekintzeetan
ageri
Arte agerpenak
beti
ari-batean
segi
oi dute
naasi
giza-muiñetan
sorginkeria
t'aztikeria
goi-jakinduriakin
batera...

4.

Gizona
beti bat
sekula
sekulotan...
Aal guzien zipu
izugarri eta santu
arte-egille
bizi guzien suspertzaille
izaki guzien ondatzaille
jaun
eta
jabe. (1976)

URTE BERRION

Urte-berri on.
Zorion
atzeman eziña...
Gero,
beti gero.
Noiz?
Itxaropena,
giza-biotzaren
aalmena:
eragille bizkor,
maitekor...
Inpernua,
itxaronipeko osiña,
garratz-miña...

Sinismena,
Itxaropena,
Maitasunaren bero-zabala;
irurak datoz
alkarrekin egaka,
itxaropenik ez bait da
sortzen,
ez an eta ez emen,
sinisgabeko biotz
elkor
maitasunik gabea...
Dezazula izan
zorionakin batera
Irukote berdingabea.

(1975)

URTE BERRI - URTE ZAAR

Urtearen aizkena,
urtearen asiera...
Asiera da amaya,
errotarria bezela
dijoa gure bizia,
bueltarik-buelta
amaitu arte garia...
Gure ogia
zuria?
Beltza?
Atzera
begiratzeko ordua:
nola dijoa gure bidea?
Zuzen ala oker gure ingurua?
Ona ala kaltea,
zer zabaltzen degu
gure artean...?
Maitasuna?
Gorrotaren eztena?
Zuzentasunaren alde
jokabidea?

Makurkeri joko
gurea?
Biurkerikoa?

Aurrera
begiratzeko ordua.
Zer da gure elburua?
Dirua?
Dirua utsik?
Politika?
Politika utsik?
Oker dijoa
gure pausoa.
Politika-oiñarrian
dirua bait dago;
potere politikoa
diru-kutxaren giltza.
Oker gabiltza
beste elbururik ez ba du
gure bizitzak...

Diru-poterea ez da naikoa.
Politika-indarra ez da naikoa.
Naikoa,
Jainkoa.
Bera da bat
eta Bera naikoa...
Gazte izatea,
bizitza aurretik edukitzea
ez da naikoa...
On-txar-ezaguera
bearrezkoa.
Okerra eta zuzena
ez dira biak
gauza berdiña:
egiteko aukera
ba degu adiña...
Zuzentasunaren jarrai
izatea
giza-emakumeendik
zatirik
ederrena...
Ori lortzen ez badegu
edena,
azkena,
etena.

Monstro baten antza
izanen degu beti:
gorputz erdia falta-
duen izaki...
Ederrik-eza.
Gizakera-
erdi...
Indartsu,
jakintsu,
onrradu:
irurakin,
osotu.
Gizatasuna,
ontasuna,
osotasuna
falta ba'zatzu,
orduan
ez dezu
azkenian
ezer egin...
Buru-erdi,
giza-erdi,
osotu gabeko
antz-irudi.

LO-EZA

(Goizaldean)

Insomnio: lo-eza
mazuzta garratza...
ganbara-gela
zarataka...
Loa, loa, lo
atoz, atoz, atoz...
Igesi doa lo
atoz, atoz, atoz...
Atoz neregana, lo gozoa.
Atoz, atoz... Iges doa
loa.
Atzeman ezin iñundik,
iñundik atzeman ezin
lorik.
Borronbilloa garunetan,
garunetan borronbilloa.
Loa,
nun zera, ene loa?

Nun zera ateetan?
Atzeman ezin,
atzeman ezin,
atzeman ezin...

Urduri nago urduri
arnas-estuka
estulka...
Atzemañ ezin,
atzeman ezin,
atzeman ezin.
Izardi-otza
izotza
eskuetan...
Borronbilloa, borronbilloa
garunetan,
guneetan...
O'ddri larria bizkar-ezurretan,

korapillo estua urdailletan...

Arnas-estuka

estulka...

Aizea falta birikeetan,
atzeman ezin aizerik,
aizerik atzeman ezin...

Ito, ito, ito-bearra

zelula guziak pil-pil...

Naiago il.

Leertu adi, ene biotz;
ene biotz, leertu adi...

Barnean izotz,

kanpotik larri;

barruan larri,

kanpotik izotz...

Eriotzaren mendean ba nego

Lasaiago.

Larriak amaituko lirazke
bein-betiko.

EneJainko,

Jainko ene,

zaude erne

nerekiko.

Larri-aldian itxumena sottzen zait barnean,
biotz-muiñean...

Leize-zuloan sarturik nago buruz-bera
ito-bearrean...

Zurrunbilloa buruan, aizerik-eza biriketetan
taupaka biotz,
izardi otz,
izotz...

Atera nazazu, ene Jainko,
eskutik eldu betirako
kinka larrian bait nago.

(1976)

ERIOZAREN AURREAN

Azkena,
illuna,
etena,
otza...
Personaren azkena,
argiaren illuna,
biziaren etena,
illobiaren otza...

Urrea,
indarra,
giarra,
koipea...
Nagusiaren urrea,
sendoaren indarra,
indartzuen giarra,
emazteki-koipea...
Zorionaren epea
galtzea...
Eriotz
zorrotz,
izatearen muiñean
sartu duk eztena
aizkena...
personaren tolesteetan,
dinamita...
aizean
utsean

eortzita
arri-luze-lodiez
ederrez
estalita...
Ire ondarea
atsa,
arra...
Zertarako urrea?
Nun duk giarra?
Urtu duk koipea,
utzitu indarra.
Pakea?
Urrea,
giarra,
indarra,
koipea...
Itzak
utsak...
Atsa,
otza,
arra...

Biziaren gezurra,
eriotza bada
azken-agurra...
Urrea, gezurra;
gezurra indarra;
gezurra giarra;

koipea gezurra...
Gezurra ederra,
gezurra jakintza,
gezurra eperra,
gezurra Jaxinta...
 Bizitza
gezuraren iturri:
 urduri
urte batzuen egoitza...
 Aizkenean,
 pitza.

Gurutzea,
ordea,
argiaren iturri
gertatu oi da...
gurutzean il bait da
Eriotz mingarri.
Piztu duk anaia
gurea,
ondoren
dakarren
zerrenda
luzea
bera...

Urrea, indarra, giarra, koipea
biotzaren menpean,
buruaren menpean
bear...
Maitasun eta
zuzentasunaren
menpean
bear...

Urrea menperatu,
indarra menperatu,
giarra menperatu,
koipea menperatu...
 Maitasun
 zuzendari,
 zuzentasun
 gidari...
Gogoa, arima
biziaren iturrira
igari.

Kristoren eriotzak
zatitu du betiko
Eriotzaren eztena,
azkena.
Argiaren semeak gera.
Argia ukatzea
guretzat
okerrik aundiena.
Pekatu orrek ez du
barkamendik izanen...
Espirituaren kontrako
pekatua
eta errua
(Espiritua izaki
biziaren iturri)...

Utsetik jaio
t'utsera biur?
Lurretik jaio
lurrera biur?
Jaiotza
biziaren asiera,
eriotza
biziaren amaiera...?

Animalien antzera?
Ortarako ezaguera?
Obeago
txingurri jaio
gizon baiño...

Tristura zait
biotzean sartzen
gurutza kendu eta
illobi-gaiñean
arri-koskorra jartzen
ikusten
dudanean...
Zure bizitzaren
bideak
argitzen
zizun krisaillua
itzali duzu...
Ondoren,
illuna
betirakoa...

Eriotza
biziaren muturra,
bizi-aldakuntza
baten asiera,
bizi berrirako atea...
Atea,
epea,
bizia
berria
obea
Jainkoarenean,
argiaren baitan,
pakean...

Lurreko neurriak
etenda,
askatasunarenean,
loturak ausita
eta
kateak.
Neurriak
aragiak
jartzen...
PLxua,
aztuna,
Lurretik sortua,
arriak
jartzen...
Arri biurtu nai?
Otza biurtu nai?
Illun biurtu nai?
Ezaguerearen azkena,
maitasunaren azkena,
argitasunaren azkena...

Illuna,
ituna...

EZ!
Argia,
egia,
bizia
neurririk gabe,
loturarik gabe,
eri-otzik gabe,
gezurrik gabe,
illunik gabe...
Gure arimea
kartzel-barrutik
aterea
Betiko Argiaren
iturrira.

(1974)

ERIoTZA, NUN DEN EZTENA?

«Zeñen dan ituna
bea bear au.
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau».

Ezerezertik sortu;
illunera biurtu.
Zer dira gizonen egunak?
Argiarekin, illuna
naasi.
Illunaren ego beltzeetan
ikara ta bildurra
giza muñean,
Illunperako ote gera?
Begi - niniak
argia egarri;
biotz - mamiak,
maitasuna.
Gauaren ondoren
eguna;
argiaren atzetik
illuna.

Pozarekin nastean
ituna:
malkoak janari
goizean,
pos - jario
eguerdian,
negarra, begitik
gabean
Negarrez ta parrez
etengabeko katean.
Maitasun da gorroto
biotzean.
Negarra semeak
ama erditzean;
malko larriak
eriotzean...

Ostiral Santuz
Eriotzak garaipen osoa,
eztena sartu bai dio
Jainkoari.

Gurutzean ito bait du
biziaren jatorri.
Nain'go alargunaren
semeari
bizia eman zenion
Jaun ori,
txintxilik zaude,
aragi otz,
gurutzetik.
Itxaropenak alde egin du
mundutik.
Eguzkiak argia galtzea
ez da arrigarri,
biotzetan itzaldu bai da
betiko argi.
Ostiral santuko gaua
gau illuna,
izan ba da illunik...

Illunago
ta argiago
argia datorrenean
illunbetik.
Gau illunean illuna.
Egun sentian,
jai eguna,
argiaren argia...
piztu bait da illartetik
Jainko bizia.
Oiu luze, zabal:
Erne Gizaldia!

Itxaropena sortu da:
gurutzetik, argia...
Eriotza garaille ba zan
galdu du eztena
Giza Semearen aragia
zultatzean...

«Nerekin sinisten dunak
ez du betiko illunik,
Nerekin bait det
argiaren iturri,
argitik argi,
bizitik bizi.
Illuna ez da
betirako,
ez negar malkoak
eten gabeko.
Giza - seme, jeiki adi
eriotzetik.
Zabaldu adimen atearak
sinismentetik
datorren argiari.
Ez aiz
arrak jango duten
janari.
Ez bai dago munduan
zure barneko argia
jango duten arrik,
sinismentetik galdua
baizik».

(1972)

KAPITAN ZARRARENA

«Zeñen dan ituna
Bera bear au...!»
Ez da ez eguna
Biurtuko gau!

Kresala odoletan
daraman gendeak,
urgañetik urrunean
atsedenik
bakar bat:
Itxasotik
Zerurako bideak,
bat eginda,
naasian,
betiko besarkada
lokarrian,
muñ alkarri dagienean
biotz barrenean.

Urteak joan,
urteak etorri;
itxasotik itxasora,
olatu iori
apar zuritik
osin beltzera...

Bizi-bidea
latza, zurea!

Goiz argi.
Urbillean urdiñ,
ingurua zuri,
pakean igari.
Zeru ta ur
alkarri loturik,
dantza meean,
aurrekua iduri
estayetan lo.
Oro argi,
urdiñ, borobill...
Erdian,
zure ontzia bakarrik.
(Frontoi zarreko
orma txurian
txingurri.)
Timoia eskuetan
Zu munduaren
nagusi!

Gure aldakoa!
Argia illundu,
pakea asarretu,
barea arrotu,
dantza biguña
zorotu!
Orrua, burruka,
naaspilla, illuna!
Agur, Pake zoruna!
Ekaitza goitik,
ekaitza betik!
Zerutik impernura
jetxi gera!
Zure ontzia,
aizean dabillen orbela!
—«Sartu, mutillok, barrena»!
Zu, bakarrik,
tente,
eskuetan timoia,
nagusi!

Asarrea uztu,
pakea berritu...
Ontzia aurrera
daramazu.
Gizakia oro da
aldakor;
Jainko bakarra
betikor!
Gora beera,
esker eskubira,
atzez aurrera
edo alboera,
ezin iraun zuzen
kristau izaera,

erdiko aritik aurrera
irtenik gabe aldamenera...
Kapitana bear ontzia
erdiko arira
erakartzeko.
—«Kapitana, ikusi nai
sistemako prakak!»
Ikarak lotutako
aoak
askatu dira.
Pakearekin batera.
lasaitasuna biotzera.
Gogorrena pasatu da;
bagoaz argira.
Zure eskuetan timoiak
ba dagit esperantza,
itxaropen osoa;
kapitana bai zera
ez bildurtzekoa!

Egunak joan;
egunak etorri.
Biotz-aspoak
nekatutzen dijoaz.
Bildur gabeko gizonik
ez bai da munduan;
bildurren gañetik
edo azpitik
biotza jartzen dutenak
baizik.
Bildurra biotzpean
nekea dakar
berarekin;

indarrez jokatu
bear bait da
beti.
Olatuak
garaitu dituzu;
baña nekeak
zapaldu zaitu.
Azken-porturako
bideak
asiak dituzu.
Kai muturreko
argiak
agertuak
dituzu.
-«Kapitana, pratikorik nai?»
«Nolan ez ba?
Pratikorik gabe
portura sartzen zail!»

Etxeko zurubil luzean
kandela argiak eskuetan.
Tiliñ otsa kalean.

Kapitan zarra,
Jaunaren zai
maindere zuri artean.
Aspaldiko lagun zarrak
Pratiko ta Kapitana.
—«Torizu nere timoia!
Aizkeneko singladura
zure eskuetan, Jauna!
Zenbat bidar egindako lana!
Beiñ bat geiago erexa da.
Goazen, Jauna, Portura!»

Itxasotik Zerura!
Illunetik Argira!
Burrukatik Pakera,
Betiko Zorionera!

«Zeñen dan ituna
bera bear au!»
Ez da ez eguna
biurtuko gau!.

(4-V-1967)

ZU GABE, ZER?

Zure esku altsua,
oiñarri dana,
gure azpitik kentzean
ondamendia gugana;
ondartzan umeak
jaso duan gaztelua
gure zuzentasuna...
Nere txaluparen lema
zure eskuetan
ez bada,
zertarako dira
jakinduri guziak?
Eutsiko gaituan
gaztelurik ez da
zure babesetik at...
Zure eskua galtzean
ur-aundietako ondoan
ondoratzen gera...
Euzten badiguzu,
ordea,
arnas artzen degu.
Azalean
sendo-iraun-eziña,
gure izaki-muiña;
zuretik, Jauna,
sendotasunak.
Izotzak
izozten gaitu barna;
suaren epela
guretzat
zure babesa.

Arrokeria
zure aurrean
eguzkiak
goizean
txukatutako intza...
Ustelkor dan aragia,
zer, zure begietan?
Olagintzako buztina
egillearen eskuetan...
Egia badezu oiñarri
apaltasunean
ta Jainko-mendean
biotza jarri,
arrotuko zaituen itzik
ez da lurtean...
Zer dira
gizonen itzak
itzekin batera
galtzen badira
erak?
Itzaren soinuarekin batera
iltzen bait da
itza sortutako
agoa berbera...!
Oiñarri sendo betirakoa,
Jainkoa.

Gure ekintza osoa,
iturburutik ura,
Zuretik sor ta
zuregana sar,
azken elburura... Ala bedi

(1974)

GURUTZEA UTSIK

Egurra utsik,
gurutz soilla,
ez dut gorputzik
bertan billa...

Kendu bertatik
gorputz illa.
Berria bear dik,
ase dedilla
gurutza bait da
pekatu-neurria...
Burua zistril,
biotz-naaspilla,
gizartea dabil
zikin-zikiña...

Okerra garbitzeko
bear odola,
erru gabeko bildotsen
odol beroa,
negar samiña,
zotin eziña,
arnas larria...

Gurutzera igo zera
gure okerren neurrian.
Bizia eman dezu
dardar mingotz estuan...
Guretzat neurri, guretzat era
gure buru bait zera.
Jetxi digute gurutzetik burua
Igo beste bat, igo bertara,

Pasio luzea
amaitzen ez da
gorputz-atalak
munduan dabilzala...

Buruaren suertea
bera du gurea
izan.
Oinak ez du buruak baiño
suerte oberik
bear.
Gizonaren Semea
anai gurea
bait da.
Aurretik bera,
beti bezala,
joana.
Gure bideak
odol-marketan
eginda.

Gurutze bat,
gurutze bi
danentzat
egiña
dirudi,
Pasio baten
luzagarri.
Igo bertara,
igo, bildurti,
oinperatu
ikara...
Beti da latza
gurutza;
laztasunak,
orratio,
leundu dizkio
Bildotsak.
Bere odolez
leundu ere
gurutz-ertza
zorrotzak.

(1974)

GORA DOA

*«Quid aspicitis in coelum?
Hic Jesus qui assumptus est
a vobis,
sic veniet...»*

Gora begira,
oiñak lurrean...

Arbolak bezela
zuztarrak

errian,
azpian,

burua,
gogoa,
anima,

egoa
goietan
aidean

egaka
librean...

Gora begira
goitik bait dator

argia,
egia,

bizia...
betirako itxaropena.

Mundua Jainkoak egiña da...

Munduan gizona errege,
Jainkoaren eskutik sortua,
Jainkoaren seme...
Munduaren erraietan

makinaren indarra,
ertsi-eziña,

erabilkorra;
aurrera darama
gizakiaren ontzia...

Beti aurrera.

Bide-gurutzeak askotan

bide berri

erosoak,

edo, berriz,

zurrunbillo arteko

saltoak

oparoak

gaztediaren pozgarri...

Zarro, ordea,

naigabea

gain-beera

dijoan

ontzian...

Ezurrak

gogorak,

zankoak

motelak,

begi-belarri lausoak;

batelak

daraman pausoak

txorabioa
sortzen
barnean...
Protesta
gurea;
baiña,
protestarako arrazoirik ez...
Okerra
ez dago kanpoan,
gure burutik at;
barnean
da,
gure buruak
makur-eziñean;
gerriak gogor,
biotzak elkor...
jinasia bear
buruan bezala
biotzean...

Aurrera dijoa gizadia,
aurrera joateko egiña...
Olatua olatuaren gaiñean;
bijoa bakoitza berean...
Gurea
ondartzara eldu da,
barea,
urregorritzko area
musuka
laztanduz
apurka-apurka
utzituz...
apal-apal

bigun-bigun
aldenduz...
Ondar-azpitik
ura berriro
itxasoruntz,
itxaso aundian murgiltzera
olatu berrien sorrera
dan lekura...
Biziaren iturrira.

«Geldi zaitez gure artean,
Jesus Jauna;
mendian beera
dator illuna,
argiaren amaiera...
biotz ituna
gurea
jaso esku artean,
itxaropenaren argia
piztu barnean,
ene biotzean...»

«Zu, Jauna,
gure biotzen elburu
eta bide
izarretaraiño;
laiño
artean argi;
malko
guztien pozgarri
eta bizitzaren sari
atsegiñ».

Amen.

(1974)

GORPUTZ-EGUNEAN

«Se nascens dedit socium,
convescens in edulium,
se moriens in pretium,
se regnans dat in proemium...»

«Jaiotzean, lagun;
maiko janari;
eriotzean prezio;
zeruetan sari...»
Mai-gañean ogi,
ontzietan ardo:
ogiak aragi,
ardoak odol...
Ogi-aragiak
janari,
ardo-odolak
edari...

Zeruetako mirari.
Sinismena eutsigarri,
maitsunak eragiñ
alkarren lokarri...
Eutsi batari.

Biotza garbi bear
mai ortatik jateko...
Jainkaoren semea
bait da
mai ontako
ogi ta ardo,
janari
taedj#-i... ./ £
Biotza garbi,
sinismena bizi;
Aragia eginen da
biziaren iturri.

(1974)

UMEEN JAUNARTZEA

*«Mutil koskor bat itsu-aurreh
doñuarekin.*

Ume koskor bat zerade oraindik
txikitxo oraindikan
Iziar Mari Joxe ta Endika
lore zurien artean
eleiz-erdian ikusten zaitut
ixil-ixil otoitzean
ordua data ume maiteok
Jesus dator zerutikan
ezkerrak eman Jesus onari
Jaungoikoaren izenean.

Ogi zuria ikusten dezu
apaizaren eskuetan
zeru-erdian bizi dan Jainko
sekulako sekuletan
osti txurian izkututzen da
maitasunezko garretan
Jainko aundia Jesus da-eta
artu zazu biotzean
ekin pozikan Jaungoikoari
alaitasun-kantuetan.

(1970)

«JACTAIN DOMINUM...»

«Bota
itzatzu
Jaunagan,
bere magalean,
zure kezkak.
Lo egizu
lasai.
Berotuko zaitu
Berak,
Berak bazkatuko
ta oiñak
sendotuko
dizu

olatu
aurpegi
eman dagiezun.»

«Jauna, Gure indar,
giza-auleriari
laguntza eman
aginduak
zureak
bete ditzan:
gogoz eta egitez
atsegin gaitezen
zuretzat».

(1974)

SALMUTEGITIK

5 Salmoa

Okerrik ez zaizu gogoko
gaizkilleeri gorroto
diezu;
ao gezurtirik
maite ez,
odol-egarri
dunak
zapaltzen
dituzu...
Zuzen eraman
nazazu,
nere oiñeeri bidea
zuzendu,
aien aotan ez bait da
egirik,
gezurra baizik;

zintzurra dute
sepultura ustela
espaiñ leunez
eztalia...
biotzean
asmo-txar-okerrak
traidoreak...
Zure begietatik
urrun dabiltz
okerkerian
murgill,
biurrikerian
biurri,
ez zaituzte nai
ikusi...

(1972)

6 Salmoa

Ez nauzu arpegian jo
asarrez;
ez nauzu gastigatu
amorruez.
Zure errukia
bear dut.
nago lur-jota
ezurrak koloka,
burua
erotua...
Eta, zu?
Noiz arte, Jauna?

Zatoz,
ene anima aska,
errukiz salba...
Eriotzaren erreinuan,
lurpeko erresuman
nork
goretsiko zaitu
zu?

Intziriz
agortua naiz;
negarra dagit
ogean,

izarak
ditut bustitzen
malkoz
gauero.
Ene begiak
erreta dauzkat
negarraren negarrez,
zaartuta
ainbeste
neke-oiñazez...

Alde nigandik
ene etsai biotz-gaiztoak;
Berak entzun ditu bai
nere negarren santsoak;
Entzun ditu ene erreguak,
onartu ditu ene otoitzak.

Zertan zaudete emen,
ene etsaiok,
txakur amorratuen
antzo
nere inguruan?
Zoazte urrunera
lotsa gaiñean
dezutela...

1972

13 Salmoa

Sentsugabeak bere kolkorako:
Jainkorik ez da...
Jainkoak goietatik
so:

An, beeran, abere antzo
gizakumeak
zuzenbidetik
at.

Onik egingo dunik
ez da.
-Nere erri maitea
asi zarete jaten...
Ogia al ba da?
Gaztaia al da ba
ortzak orrela eanzteko?
Jan dezute.
Ortzaka ekin diozute.

Nai diozute burua naastu,
bereJaunagan
itxaropenik ez dezan...
Eutziko diot nik
bere barnean
zuen ostikopean
ill ez dediñ...
Irrintzi jo dezan
birikak arnasetan...

(1972)

14 Salmoa

Zeiñek eutsiko dio
bere buruari
burrundara onetan
lur jo gabe...?
Zeiñek eutsiko
zutik
erortzeke
auspez...?
Zeiñek? Bide zuzena
daramanak,

oker-bidetik alde
dabilienak;
miiñ garbi,
biotz zuzen
ez makurren,
irabazi txarrari
bere dirua emango
ez dionik,
ta errugabearen aurka
jeikiko ez danik...

(1972)

16 Salmoa

Nere auzi zuzenaren alde
zatoz Jauna
entzun nere deadarra
etsaiak ditut gibeletik
nere aragian
beuren adarra...

Ase dira
koipetsu dituzte
biotz eozkorrak
nere inguruan dabiltz
zezen amorratuak...

Agoa darabilte arro
leoiaren antzo
leoi-kumeak
basauntz-emeari
elduak
odoletan ortzak...

Atera nazazu pekatarien
ortzeetatik,
gaizkeleen ezpata
zorrotzeetatik.

(1972)

17 Salmoa

Eriotz-ugoldeak
inguratu naute
eraso bildurgarriak
zapaldu...
Sare madarikatuak
lakio iguingarriak
arrapatu...
Lurra ikarrek
jo
oiñarriak dar-dar...

Nere izkutua nun?
Nork eutziko nau?
Zu
nere arkatiz
sendo
Zu
nere gaztelu

Jainko
ene askatzaille...

Bere eskuak eldu nau
lakio ta tranpa artetik
jaso
ta larre zabalera
narama
maite nau...

Bide zabala
nere oinpean,
kolokarik gabe
ditut oiñak...

Gora nere askatzaille
Jainko maite.

(1972)

19 Salmoa

Naigabe-gau
illun onetan
Jainkoaren beso
sendo
dezagula lagun.

Zure biotzeko
naiak
bete dizula
berak,
baita
adimenaren

asmoak
ere...
Eurak
beure burnietan
dute indarra;
guk, ordea,
zure eskuetan...
Burniak erdoitu dira,
lur jo dute;
gure asmoak diraute
espirituaren egoetan,
biziaren muiñetan...

(1973)

20 Salmoa

Jarri itzatzu etsaiak
nereak
labe gorriko ikatsak
bezela
nere anima eortzeko
lur-gorrian zuloa
egiña daukate-ta...
Atera nazu zulotik
lurra bota orduko
gaiñera...

Nere odol-ixurtzetik
iñork fruturik
atera lezakela?
Zer onik atera leza
nere eortzetik?
Entzun arren
aska nazazu Jainko maitea.

(1973)

28 Salmoa

Jainkoaren abotza
ur aundien gaiñetatik...
Jainkoaren zantzoa
odei-borobillen artetik...
Zure abotzak
ixil-arazten ditu
uniberso mugagabeko
astroak,

eguzki ta izar...
Zure arnasak suspertzen
eguzkiaren su-gar,
ta eremua biurtzen
igar...
Zure itzaren sonak
pakea dakar
gure biotz-muiñetan...

(XII-1972)

50 Salmoa

Erruki
zakidazu.
Zure errukian igari
nai dut.
Atsa dut barnean,
pekatu beltza,
gaiztakeriaren zorna
iguingarria...
Begien aurrean
dut
gau da egun...
Sortzetik
gaitzak ikutua,
amaren sabeletik
kutsutua...
Pekatuan sortu nindun
ama pekatariak;
arrezkero,
okerbidetik joan zaizkit
ene pausoak...

Animaren tolesteetan
okerra dut zutik
nere aurka...
Zugan egin dut
oker,
lege zuzena ausi dut
zure begien
aurrean...

Garbi nazazu, Jauna,
elur-ondorengo
ur gardenetan
trapu zikiñak
garbitzen diran
antzo,
ez bait da iñon
lixubarik
ni garbiko nauanik
zuretik
at.

Biotz berri bat
sort-arazi
ene barnean,
biotz-berri
biotz-garbi,
alaitasunaren biotz-bizi,
biotz-gorri,
biotz aundi...
Zuzenbidea
erakutsiko diet
oker-bidetik
zuzenera
datozen...
Nere ao
lotua aska,

Jauna,
zure zuzentasunaren
zantzoa
jo dezadan...
Opari erreak,
odol-opariak
ez zaizkizu
atsegiñ...
Biotz apala,
biotz mindua
ez dezu bastarrera
botako,
basarmortuan
egarriak iltzen
utziko...

(1972)

63 Salmoa

Gorde nazazu, Jauna, gorde
gaiztakeriaren ortzeetatik;
izkuta nazazu, Jauna, egalpe
zurean,
gaiztoak alkaturik dauzkat
aurrean...

Miztoak dituzte zorrotzak
ezpatak aiña;
zorrotza mingaiña,
pozoidun itzak dario,
mingoitzak,
illunpeko gezi zorrotzak,
errugabea zauritzeko

illunpean
uztekabean
ta arriskurik gabe.
Alkartzen dira bakoitza
bestearen alde,
oinpean
lakio maltzurra
izkutatzeko.
-Nork billa lezake?
Alkarri diote.
Gaiztakeriak asma eta
maltzurkerian gorde,
biotzak bait dituzte
beltz,
ondo-gabe...

Aizkenean,
ordea,
naasten dira
naastu

naaskeri guzian
eta
mingaiñetik datorkie
galbidea.

(1974)

72 Salmoa

Ona Jainkoa
zuzen jokatzen dunarentzat.

On-ona
biotz garbikoentzat.

Baiña nik
laban egin dut:
txirrist
nere oiñak,
koloka belaunak
ostopoka;
gogoan bait nitun,
bekaitzez,
okerretik dabiltzanen
ausardia,
segurantzia.

Arro dabiltz,
osasuna dariote
soiñetik,
nekerik ez
bizkarretik.
Beste gizadi gizajoen
bidetik
at.

Lepo-ingurutik
arrokeria
zintzilik,
indarkeria
gorpuan itsatsirik...
Aragitik
darie gaiztakeria;
biotzetik,
asmo txarrak gaiñezka.
Itz gaiztoak
aotik,
insultoak
ugari:
gaindik beerako
zapalkeriaren erreinoa
bildurgarri.
Ez dute zeruko bildurrik,
ez dute beuren miiñak
lurrean errespetorik.

Orregaitik
ditu beurengan begiak
nere erri xeeak
eta ao-zabalka edaten
beuron itzak:

-«Ote daki Jainkoak
emen gertatua...?»
Gaiztakerian, segurki;
aberastasunean
igari...

Oiek orrela ba dira,
zertarako garbitu dut biotza?
Zertarako eskuak gorde garbi?
Zertarako egun guztian
jasan bear dut iñoren gaiztakeria?
Zertarako egun-sentian,
eguerdi ta arratsaldian
nere urratsak zuzentzen
saiatua naiz?
Zertarako? Ez bait dut
iñun
argirik ikusten?
Ez bait dut ezer
ulertzen?

Jainkoaren asmoa zait
illun;
baiña,
barren ortatik
illuna zait
egun:
argiak jo du
ene ninia
ta berroein aizkena
ikusi dut.
Txirristan ipiñi dituzu
ondamendira
amiltzen...

Beeran zapalduta,
begien ikara,
leertu dituzu...
Beuren itzala
itzaldu diezu...

Barrua ospin
ta biotza miñ
nituanian
arlote-ezjakin
ta asto bat nintzan
zure aurrean.
Aurrerantz
zurekin nai dut
ta eskutik elduko
nauzu;
zure asmoen urratseetan
eramango nauzu
go-gora.

Zu ba zaitut zeruan,
zer ajola zait mundua...?
Ene biotza,
ene giarrak
zurekiko garretan
ditut bero
urtutzen...

Zu zaitut
ene gurasoen
ene bizitzaren
ondare...
Zuretik urrun
galbide.

(1976)

115 Salmoa

Doakabea nauzu,
nion nere kolkoan.
Gizonak gezur-zulo
iñor engañatzekoak.
Larri-aldian
zuregana jo dut.
Laguntza zurengan
izan dut.
Batzarrean
egingo dut
oiu:

-Jauna,
zure mirabearen
seme mirabe
nauzu;
neure oiñetan
loturik neuzkan
kateak
Zuk
eten dizkidazu,
Zuk.

(1974)

QUUIST apaiz-langille prentzāsak
egindako poesia degu au.)

Banabil, Jauna,
gizasemeak dabiltzaten
bidetik *Kmpo*.
Badabiltza ibilli,
batetik bestera,
astirik gabe,
presaka,
korrika,
juan-etorri.

Bizikletak korrika,
autuak Korrika,
kamioak Korrika,
bidia korrika,
errietan korrika
guztiak korrika.

Korri denbora ez galtze arren,
korri denboren ondoren,
korri galdutakoa arkitzen,
korri denbora irabazte arren.

Egun on,
gizon
aztirik ez det,
parkatu.

Aurrera noa,
aztirik ez det,
zai egoteko.

Karta amaitzera noa,
astirik ez det.

Zuri laguntzea litzaike gogoko
bañan...
aztirik ez det.

Bairik eziñ eman,
astirik ez det.

Irakurtzerik eziñ,
ezta gogoan miazterik,
lear eginda nago,
astirik ez det.

Otoitza,
nere gogoko litzake,
bañan...
astirik ez det.

Zuk Jauna konprenditzen
dituzu
gizaseme auek,
astirik ez dute.

Umetxoak jolasean...
bañan astirik ez...
bearbada geroago
izanen du...

Eskolaruak deberrak egiten...
astirik ez...
bearbada geroago...

Estudiantiak ordu asko,
lan geiegi,
astirik ez...
bearbada geroago...

Gazteak pelota jokuan,
futboleant...
astirik ez...
berbada geroago.

Ezkonberriak etxea prantatzen,
jazten ta egokitzen...
astirik ez...
bearbada geroago...

Aitaita-amamak billobak inguruan...
astirik ez...
bearbada geroago...

Gaxo daude,
sendabidean jartzeko
astirik ez...
bearbada geroago...

II zorian daude,
astirik ez dute
geiago...
Berandutxo!

Orrelan, Jauna, dijoaz
denboraren atzetik,
atzeman eziñik;
ba doaz lurgañean zear
arnasa artzeko
astirik gabe,
korrika,
lertzeko zorian
bizkar gañeko
kargaren kargaz.
Ez dira sekulan akaberara iristen
ez bai dute astirik;
alegiñak egiñ arren,
astirik ez.
Denbora palta.
Denbora askoren palta.

Jauna,
ez dituzu neurriak ondo artu,
mundu guztia bait dabill oker:

orduak motzegi,
egunak ez luze.
Bizitza berbera
laburra.

Zu zaude
denboratik aparte ta
irripar dagizu
gu denborakin dabilgun burruka
ikusten.

Ta gizoneri denbora-neurria
diezunean banatzen,
badakizu
zer dagizun.
Bakoitzari beria.
Eginbearrezkoak egiteko aña
denbora.

Ez da baña
alperrik galdu bear,
ezta lurperatu
ere
zure doia bait da
denbora,
pasatzen dana,
gorde eziña.

Jauna, asti ba dut,
asti neuria,
Zuk emandako
denbora-neurria.

Nere bizitzaren urteak,
nere urteen egunak,
nere egunen orduak,
denak ditut neureak.
Neuk bete bear uneak
pakean,
ixillean.
Uneak betetzea da
ur txepela,
ur orrekin egin dezazun
ardo gorri bizia
Kana'ko eztaietan
egintzenduan bezala,
gizonaren ergela
sendotzeko.

Gaurko illunabarrean
ez dizut
au ta ura ta bestea
egiteko astirik
eskatzen.
Gauza bat eskatzen dizut
bakarrik:
Zuk nai dezuna
Zeuk emandako denboran,
konzientziz,
egiteko aukera.

(1967)

GARI-ALEA

Eskean nenbillen
kalerik-kale
errixka nerean...

Bat-batean,
zure zalgurdia
urrez eiotia
dizdiraz aurrez-aurre
bide-muturrean.

Errege guztien
Erregea
badator niregana,
neurri gabeko zoriona
nerea;
amaitu zait
aurrerantzeko nekea,
eskale trebea.

Badator.
Ene poza!
Zalgurditik jetxi da,
aurrez-aurre daukat.
Nere zoriona...
Aseko dizkit barrengo goseak,
barrengo nereak,
sakelean,
biotzean,
une batean,
aundia bait da
nere bearkizunaren zuloa,
luzea,

illuna,
argi gabeko osiña...

Beregana eskua luzatzean
bere begiak
neregana maitekor eskean...
Zorabioa sortu zait barnean,
irauli zait biotza.
Iriki dut sakela
eta, nere pobrezian,
eman dizut alea,
gari-aletxo bakarra
ez bait duzu besterik bear.

Zurrunbilloa,
aize-bolara,
zaldien irrintzia...
Gurdia
badoa bere bidean aurrera.
Egunsentiaren aize epela
nere biotz-gunearen
gorde-lekuan...
Etxera bildu naizenean
sakela ustu dut mai-gaiñean;
gari-aleen artean
urrezko dizdira
ale bakar batean...

Goien-goieneko
eskalea,
zergaitik ez ote dizut eman
gari-alearen orde
biotza nerean...!

(R. Tagore) (1987)

LAINO-AZPITI

POEMAKIII

GERRA AURRETIK

*Gazteizko Seminarioa. Seireun mutilgazte Araba, Gipuzko
eta Bizkaikoak.
Errepublikara garaia.
Euskal kultura guztien pizkunde.*

*Lekuona Manuel, Barandiaran Joxe Miei, beste batzuen artean,
gure ezitzaile.
Euskera arazoan
gure lenengo urratsak an egin ginduzen.
Orduko nere iru olerkitxo ementxe dakarzkiz.
Ordukoak direlako.
Beste meriturik ez dute.*

*Madarikazio batek jo ginduzen
eta arrezkero gure inguruan
illuna.*

Eriotza.

Zorabioa.

Lur otza.

Gaiñean ar-losa.

*Apurka apurka lo-zorrorekin atera giñan, ar-losapean zirristua
arnasa artzeko...
Gero geroakoak.
Askatasunarekin «Zenbat buru, ainbat aburu»...
Osoa ez ba'da ere, askatasuna beintzat berrogei urteetan
ar-losapean bizi izan geranontzat.
Arnasa-bide badegu.*

Deba, 25-X-1987

LAPUR-TXORIA

Txori bat det laguna
neretzat kutuna
motz-lodi mokoia
mardula lepoa
paparra berriz ba-du
zezenak lakoa
illuna margoa
begi arranoa
gogor eta garratza
beraren santzoa
lapur-txoria baizik
zein orrelakoa...?

Gaua jun baño len
bera dut nik emen
jarririk alboan
leioaren ondoan
abesten dit ze kezka
dabiltzan auzoan
batzuen gogoan
bestien kolkoan
prozesiorik ez da
geldi oraingoan
—«Zenbat komendianta
ludian» zioan.

-Nik oso ondo dakit
jendiaren berri
jauregi zuria
barrutik urria
zuk lilluratu dezu
beartsu-begia
zu bere zoria
bere nai bizia
zugatik utzikolu
aldian maitia
ez ba leki nun dagon
ezti-iturria.

-Jauregi-nausiak
txakur ta katuak.
Ezkonduta bai ziran
naiz maite ez izan
dirua dutela-ta
uzte zuten alan
zorian kabian
atzedean garbian
sartzeko ez dala
beste bearrikan?
Arrezkero dabiltza
burruka bizian.

(1933)

ARLOTEEN KASINOA

*(Lazkau'ko Zelaiko bankua.
Joxe Mari Errementerari eskeiñia)*

«Urbaundi»k esan digu
lengo egunean
zertzuk pasa oi diran
arloten bankuan.
Jarraitu nai nioke
berari arloan
(ni ba'naiz edo ez ba'naiz
ba-naiz oraingoan).

Aize ederra inguruan
ortzian izarra
dirua baño obeto
degu guk bizarra.
Ardorik ez baña bai
botijo gorria
txandaka danok degu
igurtzi eztarria.

«Enri Klais» tabakua
ba-du errementariak

ez da gure arteko
lagun egokia.
Berak tabakoa jarri
bestek berriz sua
besteak papera ta
nik berriz txistua.

Zion: ba zan napar bat
(guretzat ziria)
bein eskatu zioten
tabako-orria.
Gero papera berriz
ta azkenean sua
ura lagun preskoa
bai lotsagaldua...!
Denak eman da gero
diotza naparrak:
—«espainak naituk koino
erretzeko espainak...»

(1934)

LOR-ONTZI

(Erderazko ElBucaro Roto)

Lor-ontzi apaiña
lore bikaña
gañezka.
Usai biguñez
margo biziez
gozotzen dago
bazterra.
Lor-ontzi bikaiñ
gelaren apaiñ-
garria.
Kontuz...!
Ez ikut:
erdibi dago
ontzia.

(1934)

ERDI-BI

Lorea erne zan
gorri panpoxa
maitasunaren larrosa...
Bion
biotzetik
genion
ontzia presta...
Ontzia gorriz
odolez bero
amesez pil-pil...
Negua eldu
otzetan ixil...
Or-irtete gutti
pasata gero...
Kontuz!
Ez ikut
larrosa gorria
erdi-bi dago
ontzia.

(1973)

POEMA TOTELAK

(Olimpotik jexitako «Parturiunt montes» poeteri eskeñia)

BAT: ERIO

Erio	ortza atera
erio	ta
erio	miñ
otz	miñ
otz	miñ
otza	bera
da	du
Erio.	agoa.
Ortz	Eriotzak ortza zaborretara
ortz	bota du.
ortz	Agoa gelditu zait minbera...

(1971)

BI: TOTELENA

Urrutiko in	Gurean
txaur	an
aur	an
aur	an
rek amalau;	amalau atz
gertura	o!
tu!	o!
tu!	o!
tu!	tron
ta lau.	peta

jo!
 tzen... jo!
 Gu po!
 po!
 etok po!
 burutik

 eginda gagoz

 gos
 gos
 goserik a
 mo!
 mo!
 mo!
 rraturik

 egia preson
 son
 degian son
 an
 an
 an
 an dago loturik.
 Ats gurenak
 jo!
 jo!
 jo!

arren
 leiorik ez
 ez
 ez
 egan
 an
 an
 irtetzeko.

 Konprenitzen
 ez!
 ez!
 ez
 ba!
 ba!
 ba!
 didazu
 ton
 ton
 ton
 toa
 zeralako,

 bigarrenez esango dizut

 Poetok
 tok!
 tok!
 goserik gagoz;
 gose amorratua
 aize

 garbiaren

gose
 e
 e
 atza dago inguruan
 an!
 an!
 an!
 atz ustelkorra,
 tipula usai...

 Eraman
 eziña alka
 ka
 ka
 rri
 ta lagun gu
 gu
 gu
 reari

 botafu!
 fu!
 fu!
 fumeiro ugari
 lotzagarri...

Lagun ez ba,
 ito bear
 alkar...

Ogeta lau
 ordu luzean
 lo!
 lo!
 eginda gero
 ro!
 ro!
 ro!

 sortu det
 poema total
 au!
 au!
 au!

Makur zaitzte guziok.
 Amen
 men
 men.

(1971)

IRU: LIZUN - KOBEETAN

Biotz zurubill
gaztai borobill

ill!

ill!

iU

adi,

Gaztedi!

Gogo-ganbara zuloetan
egaka

age artean

tellatupean

gautxori

txorimalo

xaguxar

illunpe beltzean

lizun-kobeetan

An!

An!

An!

Bear ziñake
argiaren izpi
egiaren egarri
illargi

ta izar

Ar!

Ar!

Ar!

Kanpai-torreko
ertzean

zintziUik,

goietan

ezarri-

tako

zirringillo.

Idiki
 ateak
 amesari.
 Utzi aldera
 lizunkeri
 illuntzar
 tatzarkeri.
 Piztu adimen-knsaillu on. • - 11 •
 Jabetu barrengo
 gogo-indar
 iturri.
 Gizon adi,
 Gaztedi!
 Eder
 On
 Egik
 gudari
 askoren bear
 dik.
 Dik!
 Dik!
 •Dik!
 Justizi
 maiteki
 kortejatzak
 ik
 Burrukan
 latz
 gorputza
 tinko
 gogoa
 garbi,
 biolin ariak
 eten zorian
 kantari...
 Ari!
 Ari!
 Ari!

Bigunkeri
 lizunkeri
 argala dakarte
 berekin
 Ekin!

Iñoren morroi izateko
 aukerako izaki.

Morrontza gustoko
 badek,
 ago morroi

Urdez,
 ezkurak janari.
 serbitzari...!

Artarako
 bear dek
 izan
 itxu
 ta gor:

Kateak esku-muturretan,
 buruan kasketa
 burnizkoa.
 Ez duk pentsatzerik!
 -Zertarako pentsa?
 Ez bai dakar
 buru-austea
 baizik!
 Utzi nazazu
 etzanda
 lozorroan
 txerriak
 lokatz
 fresko-goxoietan
 bezela..

 La
 La
 La

-Txerri nai ba'dezu
 segi,
 izanen dezu
 egunen batean
 zeure
 sanmartin...
 Tin!
 Tin!
 Tin!

Esna adi,
 Gaztedi!
 Kemenak galduta
 gero
 negar egitea
 alperrik!
 Gaur dek ire eguna.
 Erne adi!
 Trena galdu gabe.
 Oñezkoa itzake
 beti.
 Beti!
 Beti!
 Beti!

Egonean egon
 ustelkeria
 sor.
 Sor!
 Sor!
 Sor!
 Ustela
 ezertako
 ez da.
 Ongarri bezela
 ondorengoak
 ikasi dezaten
 ikas

Zertarako, bestela?

Oinpetan izateko

sekulo-sekulotan

zure griñaren menpean

iñoren agintzapean.

Pean!

Pean!

Pean!

Ez zezen

ta ez zaldi.

Ire eskuduaren

ageri,

idi...

Idi!

Idi!

Idi!

(1972)

LAU: EUSKARA...

-Euskara, jaiki adi plazara...!

-Plazara!

Plazara!

Plazara!

Ra!

Ra!

Ra!

-Gaixo nago

eziñ irten

dot...

-Eginen duzu

duzu

duzu.

-Bero dago

aidean;

otza biotzean

an

an...

-Jantzita eramen zaitugu,

antxina zituzun

jantzi zaarrak

gaiñean

an

an...

-Itoko

toko

toko

nauzute		Biotza otz	
te		Otz!	
te...		Otz!	
-Buruan kapel		Otz!	
luze		Azal ximela	
aundia,		La!	
amaseigarren gizaldikoa		La!	
Hatxe baten itxurakoa...		La!	
-Pixu geiegi dauka		-Geuk aterako degu plazara	
hatxe orrek.		Ra!	
Itoko		Ra!	
toko		Ra!	
toko		itoko ba'degu ere	
nauzute...		Re!	
-Ama ilko dezute		Re!	
aiñako ganbelua gaiñean		Re!	
an			
an...		-Klinikara obe litzake	
-Zuek zarete ganbelu,		Ke!	
idi sakratuak.		Ke!	
Itoko ba'degu ere		Ke!	
re!		ganbelurik gabe	
re!		Be!	
re!		Be!	
ganbelu luze		Be!	
orrekin joanen		-Eginen diogu alkarri ostikoka	
zaigu beste		Ka!	
mundura,		Ka!	
beste mundurik ba'da		Ka!	
da!			
da!			
Amaren begiak lauso		Bigaramonean	
So!		plazara bearrean	
So!		itota zegon	
So!		Euskera.	(1972)

EUSKERA ZER DUK, MUTILL?

Euskera izketan,
Euskera ortzetan,
ortzetik kanpora ere
zerbaitetan...

-Zer duk Euskera, mutill?

—Euskera, mitoa da.

-Zer duk mitoa, mutill?

—Utsen urrena,
utsa berbera ezpada...

-Zer duk Euskera, mutill?

-Lantegiko, tresna.

—Zer duk tresna, mutill?

-Maillua, goraizak, lanabesa.
utsen urrena.

-Zer lan eginen duk Euskarekin?

-Ideolojiak zabaldu.

-Ideolojiak Paris'tik badatoz
zergatik frantzez
erabilli ez...?

Eta, Gaztelera'tik badatoz,
gaztelera...?

—Zer uzten dezu gerala,
astoak ala akerrak...?

Astokeririk ez dugu egiñen:

ideolojiak Euskeraz

errazago

bait dituguz saltzen...

-Ikusten dut

Euskeraren azkena:

tresna

zaarrena...

txatarretan galdua,

Paris'ko berbetea

obea

bait da

ibiltzeko munduan.

AHER BELTZE'RI

Aher Beltze,
Aher Beltze,
Euskalerriko
jainko
tipi,
bizardun
kozkordun...

Leize illunera sartuko zenduke
Aher Beltze, Aher Beltze,
Euskalerria zuk,
beltzean beltze
iñor ez beste...

Zugarramurdi-ko zulo beltzean
piñu-zuzi-keartean
sexo-naasketa nabarmenean,
ezpañetan marijuana,
odol-zaiñetan
eroina,
jainko-txikien
saria...

Nundik sortu dezakezu,
gaztedi berria
zuk,
Aher Beltze bizardun,
lerde-dario
kopetillun...?!
Zure leize-zuloko
katekumenak
indarra
sexokerian galtzeak
ez al dizu miñik ematen
iñun...?
Ze euskaldun
zara zu...?
Katepean,
ankapean
nai gaituzu
sekulako...?
Artarako
bide oberik
nun...?

(1971)

BIOTZ-BIURRI

«Bat, bi, iru, lau
xaguxarrak jango al au...!»

Xaguxarra, xaguxarra
illunpean azti zaarra,
agapean lo ta lo...
Argiak ninian jo,
akullua ostiko,
argia madariko,
biotzean gorroto,
aker-beltzaren seme
illunpean murgilko...

Ulunaren senide
Kristok
argi-zinduzen
jentil-baratzatik
at,

leize-illunbeetik
at,
aztikerietik
at...

Illunpera biurtu,
biotza biurritu...!
Marx
jainko-txiki
guretzat!
Beste jainkorik
ez da
emen...!

Aker-beltzak:
Amen!
Amen!

(1972)

BILDUR NAIZ BILDUR

Nere buruari iruzur egiteko bildur.

Nere buruari egia ukatzeko bildur.

Yainkoa aragi mamitu den ezkeru,
nere erriarekin mamitu gabe ote nagoen bildur.

Nere pentsakizunak erriarenak ote?

Bere asmoak nere amo?

Bere gogoak nere gogo?

Bere naigabeak nere naigabe?

Bere bizikera nerea?

Neure Euskalerrri biotzekoari uko egin ote dioten bildur...

Bere odola nerea da,

bere bizia nerea,

bere sutraiak nereak...

Bere bizimiñik ote dut nik?

Bere naigaberik ote dut nik?

Bere egarririk ote dut nik?

Bere goserik ote dut nik?

Bere izkerarik ote dut nik?

Bildur naiz bildur.
Bide biguna artu ote dut?
Bide okerra artu ote dut?
Bide galdua artu ote dut?
Bide erbestea artu ote dut?
Euskal-bidea galdu ote dut?

Bildur naiz bildur.
Agian nere erria saldu dut.
Agian nere erriaren katea lotu d
Agian begi-ninian jo dut.
Agian bere odola eran dut.

Bildur naiz bildur.
Erria ukatu dut?
Odola ukatu dut?
Izkera ukatu dut?
Oitura ukatu dut?
Etxea ukatu dut?

Bildur naiz bildur.
Naigabea biotzean sortzen zait..
Kristautasunik ez.
Ezetasunik ez.
Maitetasunik ez.
Euskal kutsurik ez.
Arlote pobrea
erria gurea.
Bildur naiz bildur.

Bildur naiz bildur.
«Euskaldun jaio nintzan
euskaldun naz azi
Euskera maita zidan
amak erakutsi...»
Ames utsak ote diran
bildur naiz bildur.

Gaun illunean sartzen zait gogoa
gau illunean sartuta Euskalerrria...
Tunel beltzetik irterakoan
esagutuko ote degu
gure erria...?
Bildur naiz bildur.

Basoetako euskal-umeak
etxetik kanpo
egun osoan...
Itzik gabeko erria
izango ote geran laister,
bildur naiz bildur.

Euskeraren gordeleku-muiñean
sitsa sartzen da
arratsaldean...
Sitsak jango du euskal aria
erdalerrri biurturik
Euskalerrria.

Il-kanpaiak joko ote digun,
bildur naiz bildur.

(1973)

EUSKERA ETA SITSA

Ustelduak gaude
ustelduak
mami-mamiraiño
ustelduak...
Aritz-zaarreko
kutxa zaarrean
perretxikoak nabari...
Illuna
eta zoko
aizerik eza
lizuna...
Euskal-giroa
argirik gabea
zabalik gabea
aizerik gabea
oxijenorik gabea
norberekerian itxia
bekaizkerian lotua
giro sotua
Euskerari serbitzeko
baiño
bere bizkarretik bizitzeko
asmo geiago
ageri da...
Euskeraren analisa
desegiten duen analisa
era artan sitza
ere
gaztain biotzaren
erdian

bideak zulatzen dituen
zulakaitza...
Museo-gaia ote da Euskera?
Analisak egiteko gaia?
Gure arrotasunaren
oiñarria?
Gure buruak ager-arazteko
aulkia?
Euskeraren serbitzuan
ustelduko ba-giña
gure ustelean
arkituko lu bizia
gibelurdiñak
pago-azprietan
bezala...
Gure bizkarretik
lortu dezala
indarra
ala bear bait da
bizirik
irautekotan...
Bestela
ustela
Euskerea bera ba-da
geuk izen ospetsua
lortuko degu bai
bera ordea
Euskera
ilko da garai
asko baiño len...
Orduan kito, amen.

(1973)

ANEBETXO

(poema minkorra)

Kale-ertzean
ikusi zaitut
egunsentian
jai-egun goizean...

Begiak lauso,
soiña zikiñ,
ille-matasak
zurubill,
tximak zintzillik,
praka zaar
nabar
buztiñakin...

Goizeko kanpai-soiñuak
belaunetan
ez dizu egiñ
zirkiñik...

Goratzen al zera
oraiñ urte gutxi,

udaberia jaiotzen
askoetan
ikusi ez duzularik,
tontor-gaiñean
zutik
begiak argi,
zeruko urdiña nabari,
begiratzen zenion
biziari
itxaropenez yori...
Orain, berriz,
suge-beltzaren mixtoa zaizu,
askatasunaren iduri,
begi zoilitik sartu
barrena
eta ill
biotz-magalean
lo zegoan
aingerutxoa...

Askatasuna, askatasuna, askatasuna,
mamo beltzaren askatasuna,
aker beltzaren askatasuna,
grña biur guzien
askatasuna,
eziñ-asetuen
askatasuna...
-Ez dut serbitzurik egiñen;
ez dut serbitzuko...!
Apokalisis-zaldunen
amorru-askatasuna
burua malluz jo
ta
munak ateratzeko
askatasuna...
Satanas'en serbitzari,
aker-beltzaren serbitzari,
aragi ase-eziñaren menpe
ustelkorran...
Tantalo'ren egarri
ta gose
ase-eziñaren mende
sekulo-sekulotan...

* *

Madarikatua zema
emengo korotz artekoa
ez bada...
Kakatan,
zimaurretan,
loietan zilipurdika...

Goizean
argisentian,
lorak parrez
agertzean,
txorien txirulirulak
tristura
sortzen biotz-muiñean,
ondo-gabeko tristura beltza,
azaleko atsegiñak
naigabea sortzen bait digute
animaren
itur-buruan...

Ez dut serbitzurik egiñen.
Neu naiz neure
buruaren jabe;
ez etorri nere naiari
neurriak jartzen.
Ez an
ta
ez emen.
Neu naiz jainko,
neu jaiz jabe,
ondamendia sortuko badet
ere
nere gaiñ...

Ez dut nai
iñoren mende,
ezta Jainkoa ba
da
errege;
ez dut ezagunen...

Kale-ertzean zaude
loietan,
neskatil ziñan garbia
begi-urdiñ
panpoxa...
Amona-agureak dijoaz
beltzez jantzita txukun
goizeko mezetara...
irriparra zure ezpañetan:
zerua beste munduan
espero duten gizarajoak...
Zuk ez dezu biotz oien pakea
ikusten.
Lanak menperatu ditu
luzaroan,
baiña, gaur
goizean
patxara ederrean
kanpai-tintiñera
eleizara dijoaz...
Goietan galtzen dan
aria
ez dute eten;
ari orren
itxaropenak
biotz-ondoan pakea
sortzen...
Pakea barnean,
neke-ondorengo
deskantsu-atsegiña
giarretan,
pipa xuria
ortzetan...
-Emen
nai dut zerua.
Itxarongabeko zerua.

Ase
eziñaren zerua.
Amiltegi beltzaren
zerua.
Zerrien
zerua...
-Ikasia zera zu...?
Nungo eskoletan
ezi zaitue...?
Putatxo bear al dezu
zoriona billatzeko...?
Aiñ neurri motzak
al ditu
zorion orrek...?
Gajoa.
Saldu dituzu pitxirik ederrenak
ezkur-lakari baten truke...
Askatasunaren izenean...
Zeruaren izenean...
Edozeiñen eme-gai...
Askatasuna, zoriona,
lur-zerua...
Utzi eidazu
irripartxo bat egiten.
Inpernurik ez balego,
zu era orretara eraman zaituenentzako
bear litzake sortu...
Erremindunen zoramena.
Goiz-argiaren
kontrako pekatua.
Barkaziorik ez duen
pekatua.
Argia ikusi eta
ukatzen dutenena.
Pekatu illezkorra.

Gogorra
izanen da
askatasunaren eguna...
Begira, Igarle,
zer
ikusteh dezu an
be artan...?
-Ezur igarrak
pilloka...
-Bizirik al dute...?
-Igarrrak
daude, igarrak;
lurrrak
jan ditu...
-Biziko al dira...?
-Al dakit nik?
-Nik bai, badakit.
Begira
ara:
ezurrrak
igarrak
alkarri josi dira,
giltzetan,
bere unetan,
tarte aragia,
gaiñetik azala...
Ezur igarren ordez
erri gaztea,
azal berriak,
mami epelak,
odol beroak,
begi-izpiak,
biotz-taupadak,
maitasun-garra
sekulotan...

.. 4.

Maiatzaren erdian,
udaberrian,
armearmea
jetxi zan arbolatik,
bere erraietan
sortutako ariakin,
eulearen antzo,
josi zuan sarea
eguzki
errañuaren irudiko...
Udarako galdatan
armearmea
zebillen zer-ikusiko
sarea
berritu naiean...
An goietan
sarearen ari bat
galtzen da...
Ari ori zertarako?
Aidean
galtzen da aria...?
Alperrikako
gauzarik ez dut nai.
Ken zaitez emendik...
Besterik
gabe eldu dio
ortzakin.
Ebagi du goraka zijoakion aria
alperrikakoa bait zen...
Sentidurik gabeko aria...
Iñora ez zijoan aria...
Zeru goietan galtzen zan aria...
Ta or goian zer dagoen
nik ikusten ez...
Zertarako alperrik
aria zintzilik...?

Ariaren etenak
baditu ondorenak,
ez bait da ebagitzen
alperrik
gora dijoanik...
Sarea
itzuli zaio
gaiñera...
Preso dago
armearmea
bere sare-menpean
ito bearrean,
betirako...

* * *

Makiñak tan, tan
erree miñ
tin, tin
erree, tan, tan...
Erree.. miñ...
Miñ... tan, tan...
Erree... miñ...
Kurpillak,
errotak,
trasmisioak,
ugalak
etenka
leer bearrean...
Tan, tan, tin, tin...
Erree... miñ...
Tan, tan, kilk
klik, tan, tan...
presaka, mutil,
lo artzeke,
produzioa etengo lizake.

Erne abill.
Tan, tan, kilk, klik...
Tan, tan, kilk, klik...
Tan, tan, klik, klik...
Zortzi ordu luzeko
tilin, tilin...
Tan, tan, klik, klik...
Tan, tan, klik, klik...
Tan, tan, klik, klik...
Oiu luzea
goiko tellatutik;
erleak
erlauntzetik
mordoka
etengabeko saillean...
Autobusak leer-bearrean
Errenkada luzeak
zai...
Bete da,
estutu bear...
Aurrera
trinkilin-trankalan,
arre ta so...
Semaforo gorriak,
kaleko
gasolin-keiak,
izardia,
besapeko
usaiak...
Txamarrako botoia
leertu zait...
Azkenik eldu gera;
an goian, etxea;
emendik ara
lokatzea
edo

udarako
autsa...
Sei bidar astean.
Azkenean
atsedenaren eguna:
aste guziko elburua,
elburu bakarra,
ez bait da argirik aurrerago
zerua be ontan badago...
Neska ezia daukat,
aseko ditut goseak
illunpeko atsegiñetan
zerua be ontan bait dago...
Jai-eguneko goiza
aspergarrien egoitza...
Asetako griñak
tristura
biotzean...
Goazen errekarra,
mendira,
itxas-basterrera...
Iñun tokirik eza...
Plastikoa errege,
botilla zaarra,
ta pote-piparra...
Errekan ura zikiñ
itxasoan ura zikiñ,
baztar guztiak zikiñ...
Gorputza zikiñ,
gogoa zikiñ...
Zikiñak janda
ilko da gizadia:
azaleko zikiñak
barneko zikiña ageri...

Zikundu gera
ta zeñek garbiturik
ez,
galdu bait degu
itxaropena...
Igandearen ondoren
astelena.
Kartzelaren asiera,
aste guziko
kartzela...
Zerua, be ontan bait dago...
Teknika menpeko
zeru-atsegiña:
gora dijoan aria ebagi,
Jainkoa kendu erditik,
ordez,
jainko txikiak sortu:
pignus insignis
oietatik bat,
papera bear bait du teknikak,
produkzioak...
Mendiko pago lerdan,
gaztaiñ yori,
aritz mardulak
jo zuten lurra
sekulako,
papera bear bait du teknikak,
papera, papera, papera
etenik gabeko katean...
Paperaren gizarteak,
ez du asmatzen
paperik gabe
aurrera eramaten legea...
Papera, papera, papera,
paperaren erreinua;

papera bait da dirua,
papera dokumentua
ta ez nolanaiko jainkoak,
paperik gabe ez zenduke
zirkiñik egingo munduan...
Papera, papera, papera,
paperaren biotzgabeko erreinua...
Be ontan bait dago zerua...!
Insignis piñua mendian,
leja beltza erreketan,
Ez txori ta ez araiñ,
ez sardiñ,
ta ez kiskill...
Itxas-ertzak
sastrakaz,
ez lapa
ta ez lupiñ,
apakiñ
ugari.
gasoliñ-
multzo beltzak
ondartzetan
edergarri...
Orra
gizon prestuaren
zeregiñ:
izakia galdu,
legeak apurtu,
sarepean
ito...
Lo egon
baziñan,
gizon...
Mundura,
zorion izenean,
ekarri diozu teknika,

tan, tan, klik, klik...
Zerua lurrean
bait zegon...
Bear bada
ala zan
Egillearen eskutik
sortzean;
baiña,
zuk gizon,
lege guziak zapuztu
dituzu,
zerua emen sortzeko
aitzakitan...
Gerokoa kendu diguzu
Zertarako?
Makinaren menpean
itoteko,
zikiñaren azpian
arnasik gabe
usteko
ez zeru
ta ez lur...
Amesak zeru.
Agindutakoak
nun dituzu...?
Plater loietan
eskeintzen didazu
zoriona...
Ankapean
zikindu didazu
ur gardenaa...
Zer edango dut
egarri naizenean...?
Goitik zetorren aria
eten didazu...
Ordañetan, zer...?

Txerri-ezkurak,
teknikaren zikiña,
gorpuzaren zikiña,
animaren zikiña,
presa ta laisterra,
liztorraren eztena...

Zerua be ontan
bait dago...
Zer zeru...?
Akerraren zerua...?
Txerrien zerua...?
Giza-emakumeena
ere bai...?

Zikiñaren menpean
gorrotoa lege,
norberak bere burua
maite...

Argia ukatuta,
illuna
nagusi;
Jainkoa bait da
argi
ta maitasuna.
Jainkoa il diguzu:
eriotzean,
illunpean,
gorrotopean
utzi gaituzu
umezurtz...
Nun da zuk
agindutako zeru...?

Illunaren menpe
argi gabeko bizirik
ikusi al dezu
iñun?

Argi gabeko zerurik
ikusi al dezu
iñun?
Mito gabeko zerurik
ikusi al dezu
iñun?
Illuna, gorrotoa, zikiña...
zorionaren iturri...?
Zure barneko aingerua
ezkurrez aseko zaizu...?
Ez dezula aingerurik barnean.
Lo daukazu
zeruakin amesetan,
argiaren egarri,
maitasun-egarri,
garbitasun-egarri...
Aragi utsetan
aseko ez diozun egarri.
Emanda daukazu
negarrari:
«illuna sartu zait, ama,
barruan sekulako...»
Alperrik zabiltz
ez duzu
ilko,
drogatan itoko
badezu
ere...
Zaborretan etzanik
daukazu
egarri...
Ase eziñeko
egarritan
itota,
illunpeetan
lotuta,

lepazamarretik elduta
estalita agoa
arnas-estuka...

Eziñ itoko dezu
illezkorra bait da.
Bere garraxiak entzun nai ez?
Gaixoa.
Berezko egituren kontrako
bidetik daramazu
zure izakera...

Arauetatik
aldera,
zeure buruaren etsai...

Nihilismo beltzaren bidetik
gizartea
eraman nai...

Barrukoko burruka
odoletan
ase nai,
drogetan
ase nai,
izorkerietan
ase nai,

utsaren askatasunean
ase nai.

Anebetxo,
lore bat artu dut
bidean
zure amesgarri.
Joanik zera
urrun;
noiz arte
ez dakit.
Maite zaitut,
lore kutun.
Trenak durrum, durrum...
leiatillak busti,
zeruan ortz-adar
urdiñ-gorri
itxaropenaren iturri...
Bazabiltz urrun;
biotzean
min dut,
miñ etsia,
illunbeetan
argia
nabari...

(1973)

DROGAZALEAK

ERIO TZ-DANTZA BILDURGARRIA

Amaika inpernu ba omen dituzte drogazaleak...!

Kartzela-inpernu.

Emagaldukeriaren inpernu.

Salatarien inpernu.

Erremediogabeko gaxoaen ospital-inpernu.

Norbere burua xistenaz apurtzen dituztenen inpernu.

Maitasun-eziñaren inpernu.

Eta danen azpitik, drogari zor zaion serbitzu-inpernu: onek irteera bakarra du, utsa, ezerreza, norbere buruaren desegitea, aizken-aizkeneko ezbear guzien maillan...

Inpernu oien mailla guztiak jeizten dituzte drogazaleak.

Banan-banan eta ariñ-ariñ.

Mailla guzti oiek berriro, bere oiñez, igotzeko zeñek izango du indar...?

Drogaren lenengo okerra, zorabiatzeko bildurra biotzean

[sortzea da.

Zeren bildur? Droga-ezaren bildur.

Bildur orrek estutzen dio biotza drogazaleari.

Nun eta nola droga billatu...?

Ezer dedan artean, ditudanak ondatu.

Ta, gero, zer?

Lapurretan ekin, lotsarik gabe;
erailketan, bear bada,
eta ala gertatuko balitz.
Ondoren, kartzela.
Ta, gero, zer?
Neure gorputzarekin merkatu egiñ, lotzakizunik gabe.
Neure aragia saldu diru-paperetan.
Ta, gero, zer?
Lagun-urkoa salatu bear bada,
droga ematekotan,
drogaren truke.
Ta, gero, zer?
Zorabioa, kirio-naaste,
gaixotasunak, ospitala.
Ta, gero, zer?
Gero ta areago neure burua apurtu
eta birrindu,
Ta, gero, zer?
Maitasuna saldu, aztu,
biotza legortu,
anima uztu,
borondatea galdu...
Ta, gero, zer?
Aizken maillara eldu:
lurrean loietan etzanda,
drogaren egarritan,
amesetan,
gose amorratu batean...
Jostorratz-akuilluaren zai,
zorabiozko bildur
eta ikara utsetan.
Beerago eziñ.
Lur-jotago eziñ.
Eriotz muzu-luzea zai.

Gizona, Jainkoa'ren seme,
munduaren errege,
txerrikumeak baiño areago,
lokatzetan leporaño,
ar edo eme
naasian,
aragi illun-orixka,
zuloz zauritua,
zornaz betea...

* * *

Orrek zer-ikusi gutxi
du poesiakin.
Gaitz utsa; ezer onik ez.
Eriotz-dantza zorabioa.

(1973)

ERRESPETOA FALTA

Gaurko giroan
alkarri
begirunea falta...
«Gizon txikia
baiño
aker aundia
aiz i...»
kargudun gizonak
goiko
maillakoari.
Errespetoa falta.

Falta ezetza da;
baiña, ezetzak ere
badu bere izan-era:
illuna argi-eza da;
gorrotoa, maitasun-eza;
otza, berriz, bero-eza;
eriotza, bizi-eza;
utsa, izaki-eza...
Illuna, otza,
gorrotoa, utsa,
eta eriotza...
Okerkeria, gaitza,
pekatua,
zuzentasun-eza,
maitasun-eza...

Nundik da gorrotoa..
Ona
bere arrazoi-bidea:
etxe berria egingo ba
zaarra
sustraitik atera bear..
Jo dinamita
kupirik gabe;
oiñarritik
zaar guztiak atera,
erre ta kiskali
mundu berri
bat
sortu dediñ...

Baiña...
udaberriro
Izakiak
berri oi du
mundua,
argiz,
berogarriz,
maitasunez,
ixiltasunez...
Lan ikaragarrian,
eten-gabean,
otsik gabe,
zarata gabe,
eder,

maitekor,
argitsu,
polit...
Argiz
inguratua.
Zorionari
garraxiz...

-v -v /v

Nundik
sortzen dira
kea,
sua,
orruak...?
Barrungo illunbeetatik,
lur-azpiko suetatik,
barneko inpernutik,
illunbean irakiten duan
garretatik...
Ondorenak:
txikizioa,
itsumustua,
gorrotoa,
negarra,
eriotza,
eza...
udaberriarekin
zer-ikusirik asko
ez duan egoera...

Volkanak
ere
egiñ oi du
bere
lana:
arri-koskorrez,
sutautzez,
bazzarrak
bete.
Bitartean
danak
erre,
eriotzaren
mende...
Andik
noiz da
bizi berri bat
sortuko...?
Udaberri asko
etorri beariko
okerra zuzentzeko...
Bitartean
eriotzaren menpeko
erreinoa:
beltza, elkorra,
sutautza, agorra,
basamortua...
pistien burrukarako
«teatroa».

(1974)

URRE-GORRI

*(Lemoniz, Ea eta Deba «Costa Nuclear»
biurtu nai zuteneri)*

Aizean dabill orbela,
buru-gaiñean txapela.
Biotz-gabeko gizonentzako
bizia beti gainbera.
Bizia beti gainbera eta
koipea barne-muiñetan,
amiltegirik ez da paltako
bidearen muturrean.
Koipea ugari biotzean da
urre-gorria praketan,
pixuak tira egingo dio
amiltegian barrena.
Koipearekin diru-goseak
urre sor erraietan.

Urre-gorria pixua eta
amiltegieta bera
gizonak eziñ
egaka egiñ...
Beeran lertuko
aitzetan...

Egaka egiñ al izateko
biotza gorde koipetik garbi,
biotza garbi koipetik eta
urre-gorritik sakelak.

Zorionekoa
egiaren ondoren
dijoan gizona;
zuzentasunean dabilena.
Izarretara igoko dan
kometa
bezela
izanen da.
Goietan geldi
daikeena,
lasai.
Amilteirik ez da
izar-bideetan
urre-gabeko
prakeetan...
Diruak, berriz,

urre-gorritzko
kateak ditu,
gizon arrua
morrontzan lotu
al izateko.
Lotuta gero
borobilduta
amiltegian jaurteko...

* * *

Gaitz-erdi
bitartean
bere aurretik
beste guziok
amiltzen ez ba gaitu.

(1974)

BIOTZ-BIURTZE

Biur:
ur
zikiñak atera.
Ertz
batetik bestera
Okerretik
onera,
estuetik
zabalera,
loietik
garbira,
menpekotik
libertadera,
bekoizkeritik
zabalgunera,

norberekokeritik
maitasunera...
Leizeetik
mendi-erpiñera,
ito-bearretik
arnas lasai batera...
Beeko osiñetik
goiko tontorrera,
burrukatik
pakera,
barrutik
atera...
Neuretik
zeurera...

(1974)

BIOTZ-ALAI

Biotz kantari
ameslari
atzo baiño
gaur
geiago...
Biar baiño
gutxiago
gaur...
Serbitzari
beti.
Otoitz
bat,
otoitz
bi.
Zuretzat
biotz-
biotzetik.

(1974)

ITXURA UTSA

Itxasora doaz gure biziak
itxasora;
eriotzaren itxaso-aundian
murgiltzera.
Nola errekatxoak
itxasoan galtzen diran,
ala gure diruak,
ala gure urreak
ondoratzen dira
galduak,
betirako galduak,
itxaso-aundiaren osiñean
galduak...
Gure buruen arroa
umetxoak eskuetan
daraman globoa.
Jostorratza naikoa
puztua zimurtzeko...
Tutuluak nun dira?
Nun zure paperak?
Papera nagusi
paper-mundu onetan...

Utsa izan arren eta
utsaren urrenengo,
paperik gabe
bizi ezin munduan...
utsaren urrungo
dan
mundu azal
onetan...

Azala,
aizea,
itxura,
utsa...

Utsaren inguruan
dabilen mundua.
Politikak,
ixkanbillak,
izenak,
auziak...
aideak
daraman orbela.

(1976)

«LAGUN»

Txakurra dut
nerea, «Lagun»
izena
duena,
amairu illebetea
amairu kiloz
asea.
-Pitxita polita,
kakik egiten al dezu
ipurdia itxita...?
—Guau, guau,
jango al au!

Margolaria etorri zaigu
etxera
tripode,
zapi ta brotxa,
margo-kolore
guztiak
bezazpian ditula.
—«Lagun» zaude geldirik
apurño batean bederik.
Urduri zabilta, urduri.
ozkiri al dezu, ozkiri...?
—Guau, guau,
jango al nau!
—Geldirik apurño,
pitxita
polita,
moñoño...

-Guau, guau,
jango al au!

-Kutuna,
torizu ogia
gaurko zuria
biguna...

—Guau, guau,
jango al au!

Zaunkaz aspertu danean
alde egin dio kalera.

Artista trebeak
lana amaigabea.

-Pitxita
polita,
maitea
nerea,
zatoz berriro nigana.
Zatoz ta eragin buztana.

-Artista kakuta,
jun ari pikuta.
Guau, guau,
jango al au!
Eragin dio buztan-puntari;
molinillua dirudi,
txiruli-ruli,
piruli...
Artistak etzi dio.
Arategira joan-da
«Lagun»i dakarkio
ankaezurra galanta.

-Tonzu
pitxita
polita,
maitea
nerea...

Torizu
ezurñoa
muiñoa...
Ezur-usaiña «Lagun»en sudurretara eldu danean,
piztu zaizkio begiak,
iriki sudur-zuloak,
berpiztu errai guztiak,
eraginditu zankoak
arin-aringa, tximistak artua zetorrek, arranea!

- Pitxita
polita,
ago geldirik
unetxo batean,
beta-gaiñeko illeak
ikusterik
uzten ez dizu-ta.
- Artista kakuta,
jun ari pikuta.
Artistari eldu dio
bere pintzeletik,
tira emendik
tira oraindio
bestetik...
- Ago geldirik
pitxita polit...
- Guau, guau,
jango al au!
Txakurrak zaunka egitean,
utzi dio libro
artistari pintzela.
- Ze txakur madarikatu dok
au!
- Guau, guau,
jango al au!

Eldu dio ortzakin
jantzi barrenari.
-Egonari geldi,
txakur nazkagarri.
Tiraka
txakurra,
tiraka
artista,
paleta
lurrera,
pintzelak
aidera,
txakurra
makurra
artista
despista...
—Emaiozu, gizona,
egur bat agora
bere bitartean
txakurra mendean
eduki nai badezu...
Egin nion mezu.
Egurrari eldu dionean
gelditu da pakean.
«Tente potente
txakurren buztana tente».
Nundik ikusten
ote du txakur onek?
Ille zuri-beltz-
orixka
arpegi guztian
multsoka,
naasturik gabe
bakoitza
bere tokian
parez-pare...

Ontza dirudi,
txiru-liruli
piruli.

Agoan egurra
esku biak jasoak,
agurka dezu agurka,
egin zure jokoa,
artista
despista.
Ekin dio lanari
estu ta larri.
Begi beltzak
illunean
ille-artean
gordeak;
ille kiskurra danean,
beltzetik
gaiñean,
orixkatik
anketan
eta
tripa-barrenean.
Buztana
motza
dirudilla
brotxa
beltza,
illeak
txintxilika
orixkak.

«Aut utramque putabis esse veram,
aut utramque putabis esse pictam».
Antziñako poeta erromatarrak zionez
tottoa zeukan txiki-polita beltzez.

Margolariak egin zion erretratoa.
Egiazkoa
zirudin txakurra.
Alkarren ondoan jarri ezkerre ttooa
eta erretratoa,
alkarregandik bereizten, gauza makurra:
biak erretratoak
edo biak trakurak...

Neri ere berdin gertatu zait.
Askotan ezin asma bietatik
zein dan txakurra
eta zein erretratoa.
—Guau, guau,
jango al au!
Zapatillatik
eldu dit
ortzak aragian...
Madarikatua, .
bizirik zegok txakur au.
Bestea dek erretratoa.

(27-1-1977)

AMAR PLAZA BAIETZ

Euskara,
zer zara?
Idi-aposturako gaia?
Mando-arteko dema?
Egin dezatela dema
eurak,
giza-dema bada-ta.
Baiña, Euskera
zu zer zara?
Jai-arratsaldeko festa?
mandoan indarra
proatzeko dema?
Egin baietz amar plaza!
Euskera nerea,
zergaitik
eantsi dizute alperrik
orrelako karga?
Il-zorian zaudela
diote dotore jaunaren inguruan
dabiltzan akolitoak.
Zer dala-ta
eantsi dizute orrela
alperrikako zama?
Lenbailen gorde zaitzaten artxiboan
galartsuetan,
diskoetan,

kaseteetan
lurperatu nai zaituzten enterradoreak?
Ilda gero
edo bizirik zaudela,
aterako dizute muiña,
gibela,
egiteko salda bero.
Ikullu-usaiña
dariozu sortzetik...
Zurerik ez dute beste akatsik
ezagutzen, baiña,
robot berria
bear omen dute
ariña,
garbia,
korta-usaiñik
gabea...
Beuren burutik
erdia.
Euskera zaarra,
konbeni zaie
zu iltzea.
Zatiak
bear omen dituzte
zureak
sortu aal izateko
robot berria,
usai-gabea
bizi-gabea...
Frankestein berrien
mistro zatarra.
Requiescat in pace
Euskera zaarra,
ez bait dezu jaso oraindik
baserri-maillarik...

Zurekin badoa
iñularrean
Euzkadi osoa...
Miilaka urteko kultura
gordailloa,
aspaldiko kutxa,
bota dute kanpora,
zaarra bait da, zaarra;
txatarra besterik ez, txatarra...
Pipiak jota omen,
pipiak jota
kalera bota
barruan daraman
aberastasunekin batera.
Arrian arotza,
burnian arotza,
egurrean arotza...
Arri-arotik arriak lantzen
arotza,
burni-arotik burnia lantzen
arotza,
egur-arotik egurra lantzen
arotza...
Arotza, beti, arotza...
Amar milla urteko kulturaren kutxa,
Euskera zaarra,
kultura berriaren aurzaia.
Euskera berria
probetetan sortua?
Amandre zaarra bezelako
aurzai egokia
ez dezu bela topako...
Zergaitik beartu iltzera
oraindik bizi den Euskera?
Gorpua, ikerketarako gaia?

Olimpo'tik turuta-otsa:
-Madarikatoak
Euskera zaarraren biotza
bizirik gorde nai duten
tonto-lapikoak.
Iltzera zoazte idazle bezela,
Euskera zaarrakin batera.
Arranoak gera gu, arranoak;
zuek, berriz, eltxoak...
-Eltxoak gara gu, eltxoak,
arranoak zuek, arranoak
baiña, eltxoa begi-barruan
sartzerakoan
begiak gorri zaizkizu, begiak,
begietan odola dezu, odola,
bista-gabeko arranoa
gelditu zara,
bestela,
ez zenduke ilko Euskera.

(1978)

IRRIERRIURRIORRI ARRI

EUSKAL ARRI
 ERRI
 IRRI
 ORRI
 URRI

ARRI IRRI
ERRI URRI
ORRI

ERRIURRIORRIIRRI
ARRIERRIURRIORRI

!/: ~

Euskalerra Zaarra	ERRI ORRI ARRI	Zatika, zatika apika, apika arriak, arriak gaiñera... Gaillurra
Oroitapena	ARRI ERRI ORKI ORRI ERRI ARRI	estalkia beera... Erria erdika zatika, zatika galdua... Animarik ez.

	ARRI	Pirene-mendia,
	ERRI	Auñakomendia
	ORRI	gordelekua tababes...
Zeltaek	ARRI	Erriko sustraiak,
Frankoek	ARRI	mokorra gordiña,
Iberoek	ARRI	bizirik gaurdaiño
Erromak	ARRI	Euskera...
Godok	ARRI	
Moroek	ARRI	ORRIERRIARRI
Frantziak	ARRI	
Erderak	ARRI	...burua jasonaiean.
Urdiñek	ARRI	Adarrak, ostoak
Gorriek	ARRI	izotzak galduak...
ARRI	ERRI	ORRI

Arra sortu zaio enbor zaarrari barnean
 kanpotik erailtzerik izan ez dutenean.
 Barruko arrak
 erailko ote du
 arbola zaarra...?!
 Jasan ditu erriak
 arriak
 historian zear
 bere muiñean,
 animaren sorlekuan,
 mintzairaren
 itur-buruan...
 Seme-alaben eskutik etorriko ote zaio eriotza?
 Seme-alabek erailko ote dute zatika birrinduta?
 Kanpotik ostikoka
 maltzurkeriz ari zaizunean,
 barruko etsipenak,
 barruko gerrak,

barruko anai-arteko etsaipideak
emango ote dizu amaiera,
Erri-Euskera...?!

ERRI
ORRI
ARRI

Semeak arri,
anaiak arri,
odolak arri.

OROITARRI:

«Emen datza illik
bere barneko gaitzak ilda,
millaka urteetan
eraso guztietan
bizirik
iraun duan Erri».

ARRI
ERRI
ORRI.

*Deba'n Epaillak 12.1983. Ministroen
Batzarrak, Felipe eta bere anaideak,
Euskeraren aurkako erabakia artu
ondoren.*

LARROSA GORRIA

«Anton bat eta Anton bi
Anton putsura erori;
Antonen amak ba'leki
atakoluke poliki».

«Gasteria» erori da putsura.
Orixe bai benetan kutsadura.
Marxismo-aizeak mamian jota
larrosa gorria biurtu da ota.

Larrosa-gorriak goi-gaillurretan
iskillu eskas aiek eskuetan
Euzkadiren alde burrukari
gaztedia biur euskal-gudari.

Faszista kañoiak egaletan,
Erromatik ekarriak,
«Kondor» abioiak aizeetan
Hitler jaunak bidaliak...
Aizeee-ta-pun burrundara otsa,
eskuetan iskillua, motza...
Euskal mendiak gorri odoletan,
gazte osasuntsuaren odola...
Errekan urak darabil ola,
faszista tankeak aurrera ibarretan:
«Anton putsura erori»
t'Antonen ama berakin...

Urteak pasa dira berrogei
bitarteko «gasteri» berria
sexo-leizeetan alperrik uzteltzen
etzanik zuloan bertan-goxo;
andik irteteko kemenik ez...
Abeslari mendian xoxo,
gasteria ustelkerietan alperrez...
Bat edo beste or dabil
arrapakiñetan
burrukeetan
zulotik irten barik
Garbi zak arpegia, mutil;
garbitasuna eder dago beti...
Biotzetik asi
t'arpegia urbil...

Ames egin dut, egin dut ames,
ikusi dut eun milla erromes.
Biotzak alai, alkondara garbi;
berriro sortzen asi zaizkigu
mendietako larrosa-gudari.
Millaka mutil gazte,
millaka gaztedi...
ura edari, alkandora garbi
lanean eten-gabe goi-goizetik...

Zimaur artetik
larrosa gorria,
euzko gaztedia
sortu zaigu berriz.
Betirako balitz!

(29-IX-1978)

APETITUA TA PLATERA (Otoitza)

Apetitu ona ta
gañezka platera
emaidazu Jaun orrek
bi oiek batera.

Amen.

irripar
gogoan

Amen.

Urdaillean
osasuna
pakean
maitasuna.

Amen.

Biotzean
zabala
izan ala
ta geiago
zure bidean
nabillen
pozago

ankak ariñak eta
biotza ariñago.

Amen.

Irripar
ezpañan

(1978)

JUBILATUEN EGUNEAN

*«Mutil koskor bat itsu-aurreko»
doñuarekin.*

Arratsez goizik lotaratu ta
beranduarate lo-egin
pipa artzia ez zait aztutzen
txikito bana alkarrekin
bazkal-ondoan siesta bear du
gauza ondo joan dedin
siesta-ostean «bastiñoi»ra ta
adar-joka danok ekin
Gu beste danik ez dago inun
ez errege ta ez erregin.

Kamelu zarrak desertuetan
dabiltza ez jan ta ez edan
iraute omen du aste osoan
kamelua gisa orretan
baiña gizona ez da kamelu
ez zaitetz kamelu izan
orain guziok bazkaltzera ta
mesedez jan eta edan
egon ditzela edanik gabe
kameluak ermuetan.

(1974)

LENENGO JAUNARTZEAN

(«Mutil koxkor bat» bezela).

MUTIL KOSKOR BAT BANAIZ NI ETA
INPORTANTZIBATERE EZ DUT,
TXIKIA NAIZ-TA ETXEAN BETI
NABIL BESTIEN AGINDUZ.
ORAIN, ORDEA, AUNDI NAGO-TA
ZER USTE ZENDUAN ZUK,
JAUNARTZERAKO PRESTA NAIZ-ETA
NEREGARADATORJESUS. (Bis)

JESUS ARTU DUT BIOTZEAN-DA
LAZTANDU NAU NIMAITEKOR,
BARRU-BARRUKO ANIMARTEAN
MAITASUNA EGIN DIT SOR.
MAITASUN ORREZ MAITEKO DITUT
AITON-AMAMA, GURASO,
ANAI, IZEKO, LAGUNARTEA...
LEGORREZ ETAITSASOZ. (Bis)

(1980)

DEBAKO «TXATUA» SENIDEAK

*(Juan eta Angel Larrañaga, senidei
eskeiñia bere eriotzdren oroigarri)*

Deban Sandrokiak
zezenak kalean
esku-dantza
eliz-atarian...

Praka garbi zuriak
gerriko gorriak
buruan txapela
zintak bularrean
gorri ta urdiñak
ezpata eskuetan...

Badator San Roke
andatan jarria
eskuan makilla
alboan txakurra
belauna agerian
zauriz ebakia...

Asi da txistua
jiraka mutillak
aurrez kapitana
zankoak goraka
salto ariñetan
San Rokeren
aurrez-aurre...

-Nor da kapitana
aurtengo?

-Nor izango da...
betikoa

Juan Txatua
gizona prestua...

Eldu dira Gurutze Santura
Iturkaletik zear.

Aldaz goran andik aurrera
goiko muturrera
Ermitara.

Berriro txistua...

San Rokek irripar:
auek ditut mutillak,
lenengo enzierroan
orain nere ermitan
ez zeukatek ez
aguate makala...

Erriko enparantzan
aureskua
bere oiturak
aurrera eramaten gizonak
dituk euskaldunak...

Eriotzak barkatzen ez
naiz izan Txatua
kasta gogorrekua.
Oñak moteldu, nekeak
biziaren aria eten...
Bai pozik daudela
zeruan aurtan.
Dantzari iaioa eldu da
goiko gaillurrera
San Rokeren aurrera.
Ai zer nolako eskudantza
ikusiko duten
Txatuaren bidez
zeruan aurtan...!

Naigabeak eta pozak
alkarrekin doaz
bizian gurekin.
Irripar eragitea
maitasunezko ekintza
izan da beti...

Zoriona zabaldu
errian merke
dirurik eskatzeke
ordaiñetan.
Oberik, zer?
Artarako doaia
izan du Anjelek...

«Caldereros» diranean
ungrianuen erregiña
panpoxa, atsegiña,

enparantza osoa
algaretan
ipintzekoa...

Badute gatza
Txatuanekoak.
Doña Croquetarentzat
senar oberik nun topa?
Eta sopa
egiteko
Debarren Egunean
Atozteren aurrean...?

Oillaskua
zintzurretik lotua
ontzian gora ta beera
sartu ta atera...
Parre eragin
beti
aldan
guztietan.

Orixen izan da
zure doai berezia.
Eskerrak
ematen dizutegu,
Anjel,
parre eragin
diguzulako
ainbeste aldiz...

Parrez
arrapatu zaitu
eriotzak.
Azken oberik...?

Aurten
gu egongo bera
tristerik
Txatuak falta zaizkigu,
Juan eta Anjel,
Vixente
joana zan aurretik
zezenak ikullutik
ateratzen

saltari
ikusi izan degu
beti.
Baiña, ez izan kezkarik
buruan
zezenak, Doña Croqueta eta San Roke
ez dira faltako
zeruan.

(1984)

EGILLEAREN BESTE LIBURU BATZUEK

- Erderaz:** Religión Prehistórica de los Vascos. 1966.
Magia y Religión Primitiva de los Vascos. 1986.
- Euskeraz:** Oto ta Pototo. 1968.
Juantxo Txiki. 1969.
Euskalergi Zaarra. 1969.
Semeno de Lazkano: Anai arteko Gorroto. 1970.
Umeen Eguna. Deba. 1972.
Euskalergi Zaarreko Jainko Txikiak. 1973.
Euskalerrria eta Eriotza. 1977.
Euskalerrria eta Arrantza. 1977.

